



Georges Abdallah, 40 urtez kartzelan

EUROPAN ESPETXEAN DENBORA
GEHIEN DARAMAN PRESO POLITIKOA

+ Bere abokatuarekin
elkarrizketa

12-15. orrialdeak

#2.889 | 2024 / 10 / 20 | 4,00 €



**Eskolak espazio
bizigarri bihurtuko
bagenitu
arkitektonikoki?**

26 | HEZKUNTZA



**“Gazteek ez
dute hain modu
kontzientean
egiten erdaraz”**

34 | AINHOA LASA



**“Iraganean ari
gara espetxeaz eta
haur motxiladunetz
hizketan”**

44 | EZTIZEN ARTOLA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #300
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ESKUIN MUTURRA ETA SARE SOZIALAK
GEZURREK HEDATZEN DUTE GAITZA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | NORA SALBOTX
- 23 | IÑAKI MURUA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | J. IGNAZIO ANSORENA

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



UNAI BEROIZ

26 | ZAINZA BEHARREAN KONTROLA LEHENESTEN DUEN ARKITEKTURA DUGU ESKOLETAN

Mikel Garciak egindako erreportajearen bi arkitektoen ikuspegia jaso du: ikastetxeen eraikinak zaharkituta daudela azaldu dute, kontrolerako diseinatu zirela. Berritzeko modua zaindu behar dela esan dute: prozesuari duen garrantzia emanda, ez enpresei soluzioak erositia.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Abdallah: Israelen lagun amerikarrek kartzelan hilik nahiko luketen libanoarra

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | ANBROXI BURGUBURU

"Orain dela zenbait urte euskalduna haboro jiten zen Santa Grazirat"

Miel A. Elustondo

32 | GORPUTZ HOTSAK | OLGA GARATE

"Batuetan beldurraematen du zer datorren galdetzeak"

Olaia L. Garaialde

34 | EUSKARA | AINHOA LASA

"Gazteek nahi dute euskarari buruz hitz egin"

Onintza Irureta

44 | KULTURA | EZTIZEN ARTOLA

"Horrenbeste erromantizatu dugunez auzia, ez gara kontziente espetxeak sor ditzakeen ondorioez"

Leire Vargas

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua****Jabetza**
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea**Erredakzioa**
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga**Diseinua**
Maitane Gartzandiandia**Argazkilaria**
Dani Blanco**Produktzioa eta inprimaketa**
Antza S.A.L.**Administrazioa**
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde**Salmenta**
Karlos Olasolo, Pello Basurto**Banaketa**
Olatz Korta**Azoka**
Mikel Olabide**Idazkaritza**
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza**Web garapena**
Asier Iturralde**Informatika**
Iametzta interaktiboa, S.L.**Lege gordailua:** SS 837-2012
ISSN: 0213-909X**Batzorde parekidea:** 72562 E**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO****Posta elektronikoa**
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus**Telefonoa**
943371545**Gipuzkoa**
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 IruñeaAmetzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:**antza**
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA**iametzta****ADUR** software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA**OLATUKOOP**Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara





Guardia Zibilaren terrorearen apologia, plaza erdi huts batean

Orain 180 urte zenetik lehen aldiz, kuarteletik kanpo eta Gasteizko erdigunean ospatu du Guardia Zibilak bere patrioiaren eta hispanitatearen eguna. Han izan dira PSE-EEko Gasteizko alkatea eta Espainiako Gobernuko ordezkaria, Gasteizko gotzaina, epaileak, ertzainak, Espainiari, erregeari eta Guardia Zibilari bibaka eta "terrorismoaren aurka" gauzatutako lan "eredugarriari" gorazarre eginez. Ordu erdi lehenago ekitaldia egin du Memoria Osoa plataformak, Artium museoan, "gure aurkako krimenen erantzule nagusietako bati eskainiko dizkioten omenaldi eta gorazarre publikoek gudan sortzen dituen oinaze eta birbiktimizazioaren aurrean". Aretoa txiki geratu zaie eta herritar asko geratu da kanpoan; Plaza Berria, berriz, handiegi benemerita-zaleei. Itxi gabe dagoen zauria atzo baino irekiago dago gaur.

ANALISIA



@TORTURATUAK

Torturatuak: ausart edo aske?

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gaur eguerdiko albistegian, zuen hiriburuko alkatea ikusiko duzue, torturatu gintuen gorputz militarari hiriko plaza nagusia eskaintzen. Gaur eguerdiko albistegian, gure lagun eta senideak hil zituen egitura ikusiko duzue gure kaleetan desfilatzen. Eta guk, beste egun batez, ahal dugun moduan irentsi beharko ditugu haiek eragin zizkiguten mina eta beldurra. Eta errua. Eta lotsa. Eta umiliazioa”.

Guardia Zibilak torturatu zuen Amaia Urizarren hitzak dira, Memoria Osoa plataformak Guardia Zibilak urriaren 12an Gasteizko erdigunean antolatutako ospakizun militarra salatzeke ekitaldian esanak. Min, beldur eta erruduntasun horiek ez dira Urizarren sentimendu pertsonalak, ez iraganeko kontua.

Iragan astean elkarrizketa egin nion Guardia Zibilak torturatu zuen gasteiztar bati, institutu militarrek gaur egingo zuen ekitaldiaz zuen sentipena ezagutzeko. Haserrea, mina, inpotentzia adierazi zizkidan. “Urriaren 12an Gasteizen egingo dutena terrorismoaren apologia da. Nik ez baitut zalantzan jartzen ETak jendartearen zati bati terrorea sortu dionik, baina beste zati handi bati terrorea sortu digutenak Guardia Zibila, Espainiako Polizia, Ertzaintza, epaileak edo espetxeetako funtzionarioak izan dira”. Bi egun geroago, dena prest, elkarrizketa ez argitaratzea erabaki genuen. “Hori da sentitzen dudana eta hori esateko eskubidea dut, baina ez naiz gai sentitzen hori sustengatzeko”, azaldu zidan. Beldur ematen zion berriz ere publikoki agertzeak, beldur Guardia Zibilak. Aste osoa eman du ondoezik.

Duela hiru urte, beste lagun torturatu bati eskatu nion elkarrizketa, atxilotu zutenetik 20 urte bete zirela-eta. Zalantzan egon zen hilabete pare batez, ez-baian sufritzen, nik elkarrizketa ahazteko errepikatu arren, ezezkoa eman zidan arte. Berriz ere Guardia Zibilari beldurra tartean. Torturatu gisa azaltzeko eta horri lotutako sentimenduak adierazteko beldur.

Beren beldurra ez zen soilik Guardia Zibilak iraganean egindakoengatik, baizik eta gaur egun, 2024an, ETA desagertu zenetik hamahiru urtera, egin lezakeenarengatik.

Sufrimendu gehigarri are bidegabeago bat erantsi behar zaio beldurrari: biek sentitzen zuten lekukotasuna eman beharra-ren zama, berriz ere, enegarren aldiz, 20 urteren ondoren, eta testigantza ez emateak erruduntasuna zekarkien. Ez lukete ziurrenik behar eta zama berdina sentituko torturarena egia ofizialki aitortua balitz. Baina memoria osoak borroka esparru izaten jarraitzen du.

Larunbatean Gasteizen urratsak eman ziren aitortzaren eta ez errepikatzeko bermeen bidean. Atzera urratsa Plaza Berrian. Aurrera urratsa Artiumen. Gatazkak dirauen bitartean, torturatuei eta oro har estatu indarkeriaren biktimei ezer eskatzea beti izango da injustua. Kasurako, elkarrizketa eskatze hutsa samin iturburu izan daiteke. Eta hala ere jarraitzen dute saretzen, salatzen, lekukotasuna ematen, indibidualki eta kolektiboki. Baloratu dezagun ausardia eta ahalegin mingarri hori bere neurrian, ez dezagun normaldu, helburua, beste arlo batzuetan bezala hemen ere, aske izatea baita, ez ausart. ●

Zabalza auzia ez desklasifikatzeko, “segurtasun nazionala” argudiatu dute

ERREDAKZIOA

Felix Bolaños Espainiako Justizia ministroak esan du gardentasuna dagoela segurtasun nazionalaren menpe, eta behin eta berriz hala nabarmendu du, Mikel Zabalzaren heriotzaren inguruko auzia ez desklasifikatzeko. Auziaren eta segurtasun nazionalaren arteko lotura, baina, ez du argitu.

Uxue Barkos Geroa Baiko senatariak Zabalzaren auzia sekretupetik ateratzeko eskatu du, kasuaren inguruko agiriak desklasifikatzeko, baina ezetz erantzun dio Bolañošek. Ministroaren arabera, sekretu ofizialen lege frankista zaharkituta dago eta aldatu egin behar da, are, PSOEren gobernuaren informazio klasifikatua desklasifikatzeko prest dagoela esan du, baldintzak ematen badira, baina Zabalzaren inguruko agiriak ez dituzte desklasifikatuko, segurtasun nazionalaren izenean. “Segurtasun nazionalak integritatea, askatasuna eta hainbatetan gure herrialdeko herritar guztien bizitza suposatzen ditu”, adierazi du.

Zertan eragiten dio Mikel Zabalzaren heriotzak segurtasun nazionalari? Bolañošek ez du argitu, nahiz eta segurtasun nazionalaren argudioa erabili duen behin baino gehiagotan. Bertsio ofizialaren arabera, Bidasoa ibaian itota hil zen Zabalza, atxilotua ez izateko ihesean, baina froga forentseek iradokitzen dute Guardia Zibilen torturen ondorioz hil zela, Intxaurrenondon. Hala onartu dute bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak.

Uxue Barkosek Bolañosi erantzun dio sekretu ofizialen legea aldatzea beharrezkoa dela, “biktima guztiei berdin begiratzeko”. Senatariaren hitzetan, “biktima batzuei egia, justizia eta erreparazioa ukatzen zaie, eta oinarrikoa da hori”. Egia ez ezkutatzeko eskatu die Justizia eta Defentsa Ministerioei, eta nabarmendu du bai herritarrek, bai Mikel Zabalzaren familiak gertaturikoa jakiteko eskubidea dutela. ●

Ezetz harrapatu



UXUE APAOLAZA LARREA

kasle beraren datu berberak hirugarren aldiz jasotzen nituela, esaldi hain erabili horiek baino ez zitzaizkidan etortzen gogora, adimena ere ezerezak apalduta: “Ez gara ezer”, “bizitzak ez dauka zentzurik”, “jainkoak, esaten duten bezain txintxoa bada, zergatik egiten digu hau?”. Ez nengoen zerraldo baten aurrean, ez zen, ez tanatorio bat, ez hilerrria. Inprimaki bat zen.

Nork erakutsi zien idazten, joder. Liburuetatik, letretatik urrun eduki behar zen talenturik gabeko espezie batek gobernatzeko gaitu. Eta gobernatu, ia maila guztietan. Ez nuen inoiz meritokrazian sinetsiko nuenik espero, nahiz eta kontrako norabidean izan. Zenbat eta gorago, orduan eta talentu urriagoa. Etxetik hasten dira, zerrendak egiten, dena sailkatzen, eta gai dira, gero, orduak pasatzeko ulerterrazak, baina luzeak diren ikasgaiak memorizatzeko, beste sailkapen batzuekin eta zerrendekin batera. Eta ez da egoera estatiko bat, borrokatu ezean, ohetik jaikitzeke bete beharko dugu salbuespen inprimakiren bat, edo arriskuaren erantzukizuna gure gain hartzen dugula dioena, adibidez, oin bat lehenago eta bestea gero jaiki nahi ez badugu, nahi baditugu biak batera atera eta, gainera, saltotxo bat eginez, zeren eta horrek orkatila okertzeko arriskua %6 igotzen duela frogatuta edukiko baitu Massachusetts unibertsitatearen batek, eta, gero, denok ordaindu beharko dugu osasun publikoko medikua, orkatilari begira beharrean ordenagailuari begira egongo dena, bere sendatzeko talentua suizidatuta hatz erakusleez teklatura kolpatuz. Eta nola urrean eserita daukana izango da C1B2, edo HH5eko, edo Batxilergoa eta baliokideak, edo errubrikak dioena, edo testak, edo diagnosiak, edo RGIa kobratzeko behar diren izen-abizenak. Eta egongo da norbait zure ondoan esango duena “bestela, benetan behar duenak ez du edukiko”. Benetan behar duenak. Ez naiz inoiz ausartzen “benetan” zer den galdetzera. Susmoa dut ahal bezain beste tranpa egitea gaizki iruditzen bazaie, “benetan” inprimakiak zehazten dituen baldintzak izango direla. Goitik datorren inprimakiak zedarritzen du errealitatea. Eta jende horrek errepikatzen du desesperatuki “i-le-ga-la da”, “ezin da”. “Eskuak lotuta ditugu”. “Bestela nola dakigu”. “Errealista izan behar da”. Azken hori gustatzen zait gehien.

Eta errealista izatea da, errealitatea inprimakien mugetara makurtzea. Bete beharreko hutsune bakoitzak seinalatzen dizu mugetako amildegia, mehatxatzen zaitu kaosarekin, ezerezarekin. Eta orduantxe, autolesionatzeko zorian gaudela, ergel sentitzen gara. Irabazi dute. Zergatik ez dugu grebarik egiten burokraziaren aurka?

Enterrari eman eta arnasa hartu dut. Arraro begiratu dit idazkariak. Zerbait daukazu ilean. Loreak dira. Izan ere, batzuk ipuinetan bizi gara. Ezetz harrapatu. ●

EHUNDAKA ARTISTA
GUGGENHEIM URDAIBAI
MUSEOAREN KONTRA
AGERTU DIRA...



ADUR

Euskara

Euskararen kontrako oldarraldiaren erdian, berri ona iritsi da Burlatatik. PSOEko bi kidek errekurtsioa jarri zuten 2023an, Burlatako Udaleko Kultura koordinatzailearen lanpostuari profil elebiduna kentzeko. Ebazpenaren arabera, euskaraz jakitea eskatzea ez da berez diskriminatzailea.

Biktimak

Angel Berruetaren omenez plaka jarri du Iruñeko Udalak. 2004ko martxoan erail zutenetik Angel Gogoan plataformak behin baino gehiagotan jarri ditu oroigarriak Donibane auzoko Martin Azpilikueta kalean, baina behin eta berriz eraso eta erretiratu izan dituzte.

Literatura

Euskadi Literatura Sarien irabazleak iragarri dituzte. Jon Gerediagak Euskarazko Literatura saria (*Zeru-lurren liburua*), Harkaitz Canok Euskarazko Haur eta Gazte Literatura saria (*Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez*), eta David de las Herasek Ilustrazioa modalitatea (*Campos de Castilla*).

"Jaurlaritza, natura leheneratu orain"

URKO APAOLAZA AVILA

Europar Batasunak abuztuan onartutako araudi baten arabera, 2030erako degradaturiko eremuen %20 lehengo egoerara itzularazi behar da. Hori dela-eta, hainbat eragilek *Jaurlaritza, natura leheneratu orain* dokumentua sortu dute, eta asteazken honetan aurkeztu dute publikoki Donostian.

Degradatuta dauden Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gunek identifikatu eta lehengo egoerara berrezartzeko "aparteko neurriak" hartu ditzala eskatu dio Eusko Jaurlaritzari mugimendu ekologistako eta naturaren aldeko ekintzaileen ordezkariak zabal batek, asteazken honetan Donostian. Euren esanetan, Europan onartu den araudi berria ezartzeari "lehentasuna" eman beharko lioke Imanol Pradalesen gobernuak.

Donostian elkarretaratu dira Baso Biziak plataforma, Denon Berdeguneak koordinadora, Egurra eta Kandela baserritar ekintza, eta Eguzki eta Ekologistak Martxan talde ekologistetako ordezkariak. *Jaurlaritza, natura leheneratu orain* dokumentua aurkeztu dute agerraldian, testua sortu duten bost talde horiez gain, beste 22 eragileren atxikimendua ere baduena.

Abuztuaren 18an Europar Batasuneko Ingurumen Ministroen Kontseiluak Natura Leheneratzeko Legea indarrean sartu zen. Horren arabera, 2030erako degradaturiko lehorreko zein itsasoko eremuen %20 lehengo egoerara itzuli beharko dute EBko kide diren herrialdeek, eta ekosistema guztiak leheneratuta egon beharko dira 2050erako.

Ekosistemak leheneratzearen inguruan konpromisoak hartzeko nazioarteko negoziazioak luzeak izan dira, Ekologistak Martxanek gogorarazi duenez. 2022an Montrealelengindako Biodibertsitatearen Aldeko COP15 konferentzian lehen aldiz onartu zuten 2030erako biodibertsitatearen galera geldiarazi eta 2050erako "naturarekin harmonian bizitzeko helburua". Akordio horrek, baina, mehatxu eta erronka handiei egin behar die aurre, hala nola natur gunek babestea, multinazionalak kontrolatzea, herri indigenak aitortzea, baita natura leheneratzea ere.

Orain, Europar Batasunak helburu hori lortzeko bidean –eta biodibertsitateari buruzko bere estrategiaren barruan– onartu du Natura Leheneratzeko Araudia. Araudi horrek irekitako "zirrikitua" baliatu nahi izan dute Jaurlaritza interpelatzeke, eta neurriak hartu ditzala eskatzeko, araudiaren "gutxieneko alderdiak behintzat" bete ditzan. Talde bakoitzak legearen bere irakurketa egin du eta arlo zein ikuspegi anitzetatik egin dizkiote eskariak Lakuari.

Ekologistak Martxanaren esanetan, Jaurlaritzak pausoak berehala eman beharko lituzke, Espainiako Gobernuako Trantsizio Ekologikorako Ministerioa bere aldetik prestatzen ari den leheneratze planari "itxaron gabe", horretarako badituelako nahikoa tresna.

Legea "albiste ona" den arren, ñabardurak ere egin dizkiote. Eguzki taldearen ustez, esaterako, orain arte natura leheneratzeko proiektuak ez badira aurrera atera "ez da izan araudi falta zegoelako", eta horren adibide dira Lemoizko zentral nuklearra edo Txingudiko Plana: "30 urte pasa dira eta oraindik bete gabe jarraitzen du". ●



FOKU

Bizilagunek etxe turistikoak debekatzeko aukera izango dute

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak ebatzi duenez, bizilagunen komunitateek eraikin edo urbanizazio batean etxe turistiko gehiago jartzeko debekatzeko ahalmena izango dute, betiere bostetik hiruko gehiengoa lortuz gero. Modu horretan, atzera bota ditu Espainiako Estatuan etxe turistikoaren sektorean diharduen zenbait enpresaren helegiteak.

Orain arte probintzia auzitegi bakoitzak nahieran interpretatu eta aplikatzen zuen Jabetza Horizontalaren Legeko 17.12 artikulua. Gehienetan, auzitegiek ebatzi dute komunitateko jabe guztiak egon behar zutelako ados etxe turistiko gehiago jartzeko debekarekin, eta hori aldatzera dator, hain justu, Gorenaren epaia, 3/5eko gehiengoa –jabeena zein parte-hartze kuota– ezarrita.

Bizilagunen zenbait komunitatek aurkeztutako helegiteak aztertu dituzte epaileek. Marbella hirian, esaterako, bizilagunek salatu zuten etxe turistiko bateko bezeroek zarata handia atera, gauzak apurtu edota atarian txiza egiten dutela. Bozketa egin eta 51 jabeetako 48k etxe turistikoak debekatzearen alde egin zuten, baina sektoreko bi enpresak kasua epaitegietara eraman zuten.

Auzitegi Gorenako epaileen hitzetan, turismo-tasa handia duten hirietako errealitateak erakusten du aisialdia eta atsedena nekez direla bateragarriak. Azaldu dute 3/5eko gehiengoa ezartzea neurrikoa dela, gainerakoan –debekua aho batez onartu behar izateaz– ez lukeelako, debekua atzera botatzeko nahikoa izango litzatekeelako etxebizitza turismora bideratu nahi duen jabearen kontrako bozka. ●

45

euskal presori eragingo die Europar Batasuneko zigoren bateratzeak

Zalapartak zalaparta, Espainiako Senatua gainditu ondoren Europako zigorrak bateratzeko lege aldaketak aurrera jarraituko du. 2008an zigorrak bateratzeko Europak onartutako zuzentarauari Espainiak 2014an jarritako salbuespena desagertuko da; horrek 45 euskal preso politikori eragingo die.

2008an Europar Batasunak onartu zuen batasuneko presoen zigorrak bateratzea, eta horrek esan nahi zuen delitu beragatik estatu desberdinetan zigortutako presoen kartzela urteak bateratuko zirela. Adibidez, talde armatuko kide izateagatik 7 urteko kartzela jarri zioten pertsona bati Alemanian, eta bete ondoren Poloniara estraditatu zuten; han berriz epaitu eta 15 urteko espetxe zigorra jarri zioten. Bada, delitu beragatik kondenatu zuten, orain 8 urte bete beharko ditu eta aske geratu. Espainian balitz, preso horrek 15 urteak osorik bete beharko lituzke eta, hortaz, denera 22 urte egingo lituzke.

Hori gertatu zaie euskal preso askori, eta askok kalean beharko lukete. Baina zuzentaraua 2014an Espainian indarrean jarri zenean, orduan gobernuan zegoen PPK erabaki zuen lege horri salbuespen bat jartzea: bakarrik aplikatuko litzaieke 2010aren ondoren zigortutako presoei, horrela euskal preso pila bat neurri horretatik kanpo geratu ziren.

“Hizkuntza larrialdiaren aurrean Euskararen Errepublika eraikitzea beharrezkoa da”

EHE

manifestazio nazionala deitu du abenduaren 7an.

2024-10-08



“PANTAILA AURREAN DENBORA GUTXIAGO IGAROTZEKO ESATEN DIEGU GAZTEEI, BAINA IKASTETXEAN DERRIGORTZEN DITUGU GAILU DIGITALETARA KONEKTATZERA”

OFF MUGIMENDUA

ARGIA.EUS (2024-10-09)

“Harrotasun antifaxista, esker ona, poztasuna, amorrua... sentsazio gazi gozoak bizi ditugu prozesu honen amaieran”

LANDER GARCIA

Ezkabatik ihes egin zuen Segundo Hernandez preso anarkistaren gorpuzkinak jasotzean, hunkituta hitz egin du haren senideak.

2024-10-07



TEKNOLOGIA

Lagatzea



DIANA FRANCO EGUREN

La linterna de diógenes podkasteen Miguel Benasayag-egeri egindako elkarriketan pentsatzen jarraitzeko ideia anitz aurkitu ditut. Tartean, gizakiok teknologiarekin ditugun harremanen inguruan egiten dituen hausnarketak.

Elkarriketan, alderatzen da gizakion historian teknologia ezberdinek izan duten eragina eraldaketa digitalak izan dezakeenarekin. Aldaketa teknologiko ezberdinek giza-gorputzetan ekarritako mutazioak eta horiek gizarte eredu ezberdinetan islatzeko moduak. Suaren teknologia gureganatzean, adibidez, gure urdailak egin behar zuen lan gehiena kozinatze prozesuan laga zuen giza-gorputzak, eta soberakin energetiko horri esker burmuina gehiago garatu zen; organo baten gaitasuna galdu genuen, baina burmuinaren handitzeak gerora aukerak ekarri zituen gizakion gizarteotan.

Benasayagek dio, gizakiok tresnekin berezkoa dugula harremanak sortzea, tresnak gure gorputzen hedadura bilakatzeko trebezia dugula. Gure gorputzetara eta beharretara egokituriko tresna sortzaile garena. Baina industrializazioarekin gaitasun hori zapaltzen da kapitalismoa elikatzen bideraturiko makinaren sorkuntzarekin, kapitalismora loturiko makina ez delako tresna, kapitalismora loturiko makinak zenbait gaitasun konkistatu zituen eta gorputzaren desjabetze prozesu bati hasiera eman zion. Ordezkapenik ekarri ez zuen prozesu bati, alegia.

Dugun digitalizazio ereduarekin antzeko fenomeno bat ematen dela dio. Baina oraingoan burmuinaren konkista dagoela arriskuan, kapitalismora loturiko makina digitalak gure gorputzak ez ezik gure burmuinak atrofiazteko gaitasuna dutela, eta Benasayagek burmuin gutxituz hitz egiten du, konplexutasuna eta esfortzua saihesten dituzten burmuinak, berehalako erantzun bitarraren bila. Gauza da, eraldaketa digitalari loturiko gaitasun lagatze hroi bizitzeko esparru gehienetan dugula, ez soilik produktiboan. Burmuin kolonizatuak izango baditugu, kapitalismoaren makina digitalera egokituriko prozesuak jarraitzeko gai baino izango ez diren burmuinak baditugu, burmuin gutxituak izango baditugu, zer nolako gizarte ereduak biziko ditugu? ●

NAZIOARTEA



FIONA HANSON/PA/PA PHOTOS

Norenak ote dira munduaren akabuko uharteak?

MIKEL ARAMENDI

Gurutzegramen zaletuek -eta beste inork gutxi- ezagutu ohi dute Txagos uhartediaren izena. Irla haietan handiena, Diego Garcia, aipatzen bada, gehixeago izango ginateke aditzera dugunak: ospea -ez batere gozoa- lortu du bertan dagoen base militar estatubatuarrak, besteak beste, Irailaren 11koen ondoren atxilo islamisten "zulo beltza" izateagatik. Handik urruti gabe (esate bat da, edonondik urruti baitago paraje hura) izango da itsaspean Osama bin Ladenen gorpua.

Berriketa usatuxea zen garai batean batzuen artean zein kontinenteren ote zegokion Diego Garcia irla: Asiari (Maldivak 1.225 kilometrorara dituelako; eta kontinentea bera, Indian, 1.775era), ala Afrikari (Seychelleak 1.775 kilometrorara dituelako; eta kontinentea, Somalian, 2.850era). Erantzun "zuzena", noski, zen Ipar Amerikakoa zela, Baseko estatubatuarrak (3.000 baino gehiago), eta ofizialki irletan "jabe" lirartekeen britainiarren ordezkari bakan batzuk besterik ez direlako bizi bertan.

Ez zen hala, ordea, duela 70 urte. Orduan, Indiako Ozeanoko Britainiar Lurraldearen manupekoak ziren Txagos irletan... txagostarrak bizi ziren. Gutxi ziren, pare bat mila, baina bertakoak ziren, aspaldiko belaunaldietatik gainera. Txagosko kreolea hitz egiten zuten, eta bizi-raupeneko nekazaritza eta arrantzatik bizi ziren.

Bada, 1960ko hamarkadan, jende hura guztia, salbuespenik gabe, hartu eta deportatu egin zuen aginte kolonial ingelesak. Milaka kilometrorara erbesteratu ere: Maurizio eta Seychelles irletara eta afrikar kontinentera. Aziendak, zakurrak eta gainerakoak bertan akabatu zituzten. Irlak "hutsik" geratu behar zuten AEBen eskuetan jartzeko, haiek beren basea eraiki zezaten. Han jarraitzen du 50 urte igaro ondoren.

Deportatuak eta, honezkero, haien ondorengoek, ahalak eta bi egin dituzte ahal izan duten esparru bakarrean: auzitegietan. Britainiarretan lehendabizi, nazioartekoetan gero, Nazio Batuetan azkenik. Alde guztietan eman zaie arrazoia eta aitortu zaie etxera itzultzeko eskubidea. Baina alferrik.

Okupatzaileen azken txilinbuelta da Txagos irlen subiranotasuna 2.000 kilometro baino gehiagora dagoen Maurizio "itzultzea"..., 1814ko Parisiko Tratatuari (bai, Napoleonen gerraren amaierakoari) men eginez; baina txagostarren eskubidea mauriziarren iritzarren mende utzita. Eta, hara, Txagos uharteak ehun urterako okupatzaileei errentan lagaz. Beraz, txagostarrek erbestean jarraituko dute eta baseak Diego Garcian.

Hor dago koska. Gerra Hotzean zio batzuegatik, "War On Terror"-aren garaian garaiko motiboengatik, eta orain Estrategia Indo Pazifikoa dela eta, munduaren akabuan dagoen base hark asko balio du. ●

Osborne zezena bota du Ernaik



TUTERA / "Españolismoa goratzen duen sinbolorik" ez dutela nahi adierazi dute antolakundeko kideek. Euskal Herri antifaxista aldarrikatzeko ekintza izan da Nafarroan gelditzen zen azkenengo zezena botatzea, ekintza zuzenaren bideoa zabaltzearekin batera.



Israeli boikota

Arrasateko supermerkatuetan salgai dituzten produktu eta saltokiei eskatu diete Israelen ekoiztako produktuak saltzeari uztea: Eroskik eta Alcampok eskaria onartu dute; Lidl eta BMk ez. Elkarretaratzea egin dute Lidl supermerkatu aurrean.

Kolonialismoa

Airbnb eta Bookingek ostatua eskaintzen dute palestinarrei kendutako lurretan. Ehunka etxe, hotel edo apartamentu dituzte Israelek Palestinan okupatutako lurretan. Nazio Batuen Erakundeari entzungor egiten diote.

Elikadura

"Nafarroako Intxaurra" kalitate-marka sortu dute. Lizarraldeako, Erdialdeko eta Goi Erriberako zortzi ekoizle biltzen ditu. Kanpaina honetan 200 bat tona intxaur merkaturatuko dituzte, Nafarroan ekoizten den intxaur kopuruaren %46 inguru.

ABDALLAH: ISRAELEN LAGUN AMERIKARREK KARTZELAN HILIK NAHIKO LUKETEN LIBANOARRA

Berrogei urte eginen du urriaren 24an Georges Ibrahim Abdallah libanoarra atxilotu eta preso sartu zuela Frantziako Estatuak, eta horrenbestez Europako preso politiko zaharrena da. Palestinaren askatasunaren aldeko militantea, Libanoko Frakzio Armatu Iraultzailearen sortzailea izan zen, eta diplomazialari israeldar eta amerikar bana hiltzeaz akusatua da. Inoiz ez ditu bere gain hartu atentatu horiek, baina bere ideia politikoak ez ditu sekula isildu: antiinperialista suharra da. 1999az geroztik baldintzapean aske egon badaiteke ere, sistematikoki errefusatu zaio aukera. Hamaikagarren aldikoz aztertu berri diote eskaera eta azaroaren 15ean jakinen du epaia. Bizkitartean, lau pareten artean segitzen du 73 urteko borrokalariak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Berrogei urtez mundua erabat aldatu baldin bada ere, gauza batzuek bere horretan segitzen dute. Demagun, Israelen politikak.

1982ko ekainaren 6an Libano inbaditzeko erabakia hartu zuen Israelgo Lehen ministro Menahem Beginek, Palestinaren aldeko erresistentzia itotzeko; eta berrogei urte eta gero, Libano inbaditu du berriz Israelgo Gobernuak, eta gutienez 2.000 libanoar hil ditu irailaren 23az geroztik. 1984ko urriaren 24an Georges Ibrahim Abdallah libanoar marxista preso sartu zuen Frantziako Poliziak eta lau hamarkada pasa badira ere, berdin-berdin segitzen du preso. 1987ko auzian parte

zibil zen AEBetako Gobernuak eta Abdallahri bizi osorako kartzela zigorra bideratzearen alde aritu zen; eta 2024ko urriaren 7ko baldintzapeko askatasunari buruzko epaiketa berrian berdin segitzen dute, parte zibil izaten eta libanoarra askatzearen kontra. Nolazpait, Palestinaren okupazioaren eta zapalketaren pertsonifikazioa dugu Georges Ibrahim Abdallah, eta ezinhobe erakusten digu AEBek eta oro har Mendebaldeko estatuak Israeli erakutsitako babes itsua. Politikoa da Abdallahren kasua, eta epaiketa Justiziatik bideratu beharrean, alde politikoak hartua dio gaina. "Estatu-arrazoia" dugu maniobran, eta hori ere ez da aldatu azken 40 urteetan.

MARXISTA ETA ANTIINPERIALISTA

"Leporatzen dizkidazuen ekintza antiinperialista horietan parte hartzeko ohorea ez baldin badit ere bideratu herriak, behintzat, zuen auzitegiak epaitu izanaren eta borraroen legimititate kriminalaren parean [ekintza] horien legimititatea defenditzearen ohorea badut", zioen epaileari, 1987ko otsaileko Asisetako bigarren auzian. Postura hori atxiki izan du hastapenetik: AEBetako enbaxadako arduradun-militarraren laguntzaile Charles Ray eta Israelgoaren bigarren idazkari Yaacov Barsimantov hil izanaz akusatua da, baina ez ditu sekula beregain hartu atentatuak, nahiz eta

politikoki, ekintza antiinperialista horiek defenditu. Amerikarraren hilketa 1982ko urtarrilaren 18an izan zen Parisen, eta israeldarrarena urte bereko martxoaren 31n, Parisen ere.

Libanoko Kobayat herrian sortua 1951n, ideia marxistei lotu zen gazetarik Abdallah, eta Palestinaren askatasunaren alde egin nahian sartu zen PAHF Palestina Askatzeko Herri Frontean. Israelek Hego Libanon burutu inbasioaren aurkako parez pareko erresistentzian sartu zen 1978an. Urte bat berantago, 28 urte zituela, FARL Libanoko Frakzio Armatu Iraultzailea sortu zuen, Libanoren okupazio inperialista ororen -Israel, AEBak eta Frantziarena- aurka eta Palestinaren askapenaren alde borrokatzeko. Funtsen, Abdallahri leporatzen dizkioten 1982ko bi atentatuak izan ziren FARLek beregain harturiko lehenak. Urte horretan, berriz inbaditu zuen Libano estatu sionistak, beti ere amerikarren babesarekin. 20.000 hildako eragin zituen inbasioak.

Urte horietan Frantzian da Abdallah. Mossad Israelgo zerbitzu sekretuen partetik jasandako presioen eta mehatxuen abisua eman nahian komisaldegira joan eta orduan atxilotu zuten, Aljeriako pasaporte faltsua ukateagatik. "Bagenekien FARLeko kide inportante bat zela, Europako informazio zerbitzu andanak zuelako ehizatzen eta gainera, Frantziako Action Directe edo Italiako Brigada Gorriak mugimendu erradikalekin harremanak zituelako", kontatzen du garai hartan Frantziako zerbitzu sekretuen buru zen Yves Bonnetek. Hastapen batean ez zuen luzerako izan behar presondegiratzek; 1986ko epaiketan lau urteko kartzela zigorra bildu zuen, armak ukateagatik eta paper faltsuak erabiltzeagatik. Pentsa, FARLek Libano iparraldean bahituriko Gilles Sidney Peyroles diplomatarerekin trukatzeko akordioa ere bazuten izenpeturik 1985ean.

1987KO AUZIA: ESTATU-ARRAZOAREN GAILENTZEA

Baina atxiloketaren eta 1987ko otsailaren 23an irekiko zen auzi berriaren artean, Abdallahri begira egindako akusazioa erabat aldatu zen. Libanoarra preso atxikitzearen alde kokatu zen Ronald Reagan AEBetako presidentea bera. Komunikabide handiek izua ongi zabaldu zuten, "Frantzia ikaritzen zuen terrorista arriskutsua" bihurturik tarte



FREE GEORGES ABDALLAH

40 URTEZ PRESO 1984an atxilotu eta preso sartu zuten Palestinaren aldeko ekintzailea. 1999az geroztik egon daiteke aske, baina sistematikoki errefusatu diote baldintzapeko askatasuna. AEBetako Gobernuaren presioa argia da, preso nahi du libanoarra eta askatze prozedurak blokeatzen dabilta.

laburrean. Etxean aurkituriko armaren eta bi diplomatzen hilketaren arteko lotura egin eta bizi osorako presondegi zigorra ezarri zion epaileak. AEBak parte zibil ziren, eta hor hasi zuten orduz geroztik sekulan gelditu gabeko Washingtonen presioa. Horrela laburbildu zuen epaiketa, garaian *L'Humanité* komunikabide komunistak: "Washinghonek irabazi du, Tel-Aviven txalo artean (...), hastetik buru kanpoko estatu batek gidatu du Abdallahren kontrako epaiketa". Presoaren abokatu izandako Jacques Vergès-ek behin eta berriz salatu izan du bere

bezeroaren aferan sistematikoki dagoen "AEBen beto onartezina". Pentsa, 1999az geroztik egon daiteke karrigan, baina hamar aldiz errefusatu izan diote baldintzapeko askatasuna. Abdallahrekiko errabia temati hori esplikatze orduan, 1980ko hamarkadaren erdialdean Frantzian zegoen giroaz oroitarazten da *Le Monde Diplomatique*-n "'Terroriste' un jour, terroriste toujours?" (Behin 'terrorista, betirako terrorista?) erreportajea. Hainbat atentatu izan ziren auziaren aitzineko hilabeteetan, eta frogarik gabe FARLi -eta zehazkiago, Georges Ibrahimen bi

anaiei- lotu zituzten autoritate politikoek baita komunikabideek ere. Alta, zibilen kontrako erasorik ez zuen bideratzen erakunde antiinperialistak eta beti zituen militarrek edota diplomatak jomugan. Gerora argituko zen Hezbollahk bideraturiko erasoak izan zirela, Irak eta Iran arteko gerlan Frantziak Irak militarki lagundu izana salatzen.

2012-2013ko epaiketan begibista-koa izan zen amerikarren presioa. Azkenean, 28 urte preso pasa ondoren onartu zitzaion baldintzapeko askatasuna -zazpi aldiz errefusatu ondoren-. Zigorren betearazteko ardura duen auzitegiak baikorki erantzun zion eskaerari, baina laster sentitu zen AEBen presioa: "Deitoratzen dugu erruduna den Georges Ibrahim Abdallah terroristari buruzko epaia. (...) Espero dugu Frantziako autoritateek dei egitea eta ezeztatua izatea epaia", Charles Rivkin Frantziako enbaxada amerikarraren hitzetan. Erran eta egin: helegitea jarri zuen ministerio publikoak. Bigarren epaiak berretsi egin zuen askapena, baina Libanora itzultzeko baldintzapean -epaia "baikorki hartu" eta sartzeko baimena bideratzeko prozesuak abiatu zituen Kanpoko aferen ministro Adnane Mansour-ek-. Harrera festa prestatzen hasiak ziren libanoarrak, 28 urte eta gero, azkenean itzuliko zitzaielako Abdallah estimatua. Baina, bigarren abisua luzatu zuten AEBek: "Badakigu legalki Frantziako Gobernuak ezin duela epaia ezeztatu; baina, Frantziako autoritateek epaiaren legezkotasunaren kontra egiteko bidea atzematea espero dugu", AEBetako garaiko Estatu idazkari Hillary Clintonen hitzak dira. Hiru egun geroago jaso zuten oparia: Manuel Valls Barne ministroak ez zion kanporatze ordenantza izenpetu. Pun-



MOBILIZAZIOAK Abdallahen askatzea galdetzeko herritar mugimendu aktiboa bada Frantziako Estatuan, Libanon eta nazioarteko beste hainbat txokoetan ere. Ipar Euskal Herrian ere mobilizaturik dira, eta autobus bat antolatzen dute urriaren 26an Lannemezanen eginen den manifestaziora joateko -hiri horretan dute preso Abdallah-.

“Badakigu legalki Frantziako Gobernuak ezin duela [askatzearen aldeko] epaia ezeztatu, baina espero dugu epaiaren legezkotasunaren kontra egiteko bidea atzematea”
AEB, 2013an

tu final. Abdallah eta abdallahtarrek sekulako zaplaztekoa bildu zuten. Urteak joan eta urteak etorri, joker horrek hor segitzen du, dakigunez, 2022an ere Gérard Darmaninek errefusatu ziolako kanporatze ordenantza izenpetzea.

Azaroaren 15ean jakinen da hamai-kagarren askatasun eskaerari buruzko epaia. Politikak gaina hartu du berriz ere urriaren 7ko epaiketan. Abdallah Hezbollah eta Hamasi lotu eta bere askatzearen aurka kokatu dira bi prokuradoreak. 73 urteko preso askatzea "arriskutsua" omen litzateke, armak berriz hartzen ahalko litzuzkeelako. Betiko leloaren betiko leloa Israelek Libano inbaditurik eta Gaza xehaturik duen honetan. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Jean-Louis Chalanset Abdallahen abokatua:

“Hipokrisia handi batean gara.
Errealitatea da ez dutela askatu nahi”

Hasteko, nola doa Georges Ibrahim Abdallah?

Fisikoki ongi doa. Hori bakarrik erran dezaket, hortaz haratago ez naiz bere izenean mintzatuko.

40 urtez kartzelan, Frantziako preso politiko zaharrena da. Frantziakoa eta Europakoa ere.

1999az geroztik egon zitekeen aske, baldintzapean. Nola esplikatzan duzu tematze hori?

Frantziako Estatuaren presioa dugu hor, ez du aske ikusi nahi. Zergatik? Segur aski arabiarra delako. Noski, amerikarren presioa ere hor da, nabaria da. Israeldarrek ofizialki ez dute sekula erreakzionatu, bide ez-ofizialek baliteke. Urriaren 7ko epaketan berriz ere parte zibil gisa kokatu dira AEBak. Fermuki agertu dira Abdallah askatzearen kontra –eta hori prokuradorea baino anitzez gogorkiago-. Higuigarriak dira; diote, libratuz gero Hezbollahren garaipena izango litzatekeela. Alta, Libanoko ia alderdi politiko guzietan dute bere askatasuna aldarrikatzen. Presidente ohi, ministro, zein enbaxadore, Abdallah hartzeko prest direla diote denek. Ez dago oztopo izpirik alde horretatik. Izan kristauak, xiitak edo sunitak, alderdi politiko ia guzietan dira bere herriratzearen alde.

Hamaikagarren askatasun eskaera aurkeztu duzue. Hamar aldiz errefusatu izan zaio.

Duela hamaika urte onartua izan zitzaion, baina kanporatze ordenantza bideratzearen baldintzapean. Barne ministro Manuel Vallsek errefusatu zion. Geroztik beste eskaera batzuk izan dira, aldi oro onartu gabeak. Beti dituzte argudio berak: dolutu ez izana, ideia berekin jarraitzen duela eta beraz berriz hasteko arriskua badagoela... Zentzugabekeria batean dira.

Azkenean Justiziak ez, Politikak du epaia bideratzen.

Berez irizpide batzuen arabera onartzen ala errefusatu da baldintzapeko askatasuna. Kontua da interpretatu egiten dituztela irizpide horiek. 40 urte pasa dira eta ez dago batere egoera politiko bera. Hipokrisia handi batean gara. Errealitatea da ez dutela askatu nahi.

Egoera aldatu da, baina Israelek berdin segitzen du.

Noski, egoera aldatu dela diodanean Libanoko talde marxistek buruz ari naiz. Palestinarrak ere duela 40 urte baino gutiago dira.

Ekialde Hurbila sutan dagoen honetan dator auzia.

Bai eta hori ez doa baitezpada

gure alde. Berez, leporatzen zaiona justifikatua dela onartzen baltz, orduan, gure alde eragingo luke testuinguruak, hain zuzen, ikusten dugulako israeldarrek eta amerikarrek 40 urte pasa ondoren ere segitzen dutela herri palestinarra eta libanoarra hiltzen. Maleruski, ez dut uste hori izango denik epaileen begirada.

Defentsa egiteko orduan zertan jartzen duzue indarra?

Preso pasa dituen urte kopuru luzea oroitazten diegu, eta militante politiko bat izanik, ez duela dolu ala barkamenik erakutsi beharrik. Biktima bezala dauden AEBen indemnizazioa errefusatzeko leporatzen diote. AEBek eraikitako bonbek Libanoko eta Palestinako haurrak hiltzen dituzten kontestuan, izugarrizko karikatura batean gaude.

Baikor zara?

Egoera ez da hain ona, ezkorra izateko arrazoiak ditut. Ez da ezer berririk agertu urriaren 7ko auzian. Guztiak dira bere askatzearen aurka, prokuradoreak behin eta berriz ohartarazi du terrorista bat ezin dela askatu. Berez zuzenbide kontu bat beharko litzateke izan; kontua da zuzenbidea baliatzen dute-la ikuspegi politikoa elikatzeke. Ageriko da.

Anbroxi Burguburu

LABORARI SINPLE BAT (OMEN)



ORAIN DELA ZENBAIT URTE EUSKALDUNA HABORO JITEN ZEN SANTA GRAZIRAT



Liburua da Txomin Peillenena, *Animismua Zuberoan* (Haranburu, 1983). Hango istorioek ekarri gaituzte Urdatx edo Santa Grazira. Besteak beste, azkena hildako hartzaren historiak, kasu honetan ez baita istorioa. Herriko ostatuan galdezka hasi, hartzaren historia lekukotzen duen argazkia erakutsi, eta esan digute: “Nik egina da argazki hori!”. Are, argazkiaren bestelako kopia bat erakutsi digu Anbroxik...

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Zer diozu, zuk egina da argazkia? 1959 da urtea...

Bai, eta badut beste bat ni nagoena! [Etxean eskegia du, horman. Hartu eta erakutsi digu] Hala ere, Peillenek 1959 ezarri zuen liburuan, baina nik urte horretan 13 urte nituen. Mutikoa nintzen oraino! Argazki hori egina da 1967an, eta segur naiz, justuki, armadako galtzak jantzirik ageri bainaiz potret horretan. Eta pentsatzen dut eguna irailaren 5a zela, egun hartan baitzen irekitzen ihizia. Bestela, ez zen libro armak ateratzea. Hartza hil genuen, baina hura hiltzea ere ez zen libro. Bi urte lehenago bai, libro zen. Uxaldia egin genuen, hartzaren hil

nahiz, baina ez genuen animalia atzeman eta, beraz, ezin hil. Baina hartza hor zen beti, herrian, eta artzainari hainbat ardi hil zizkion, eta ez guti.

Baina, erran duzunez, hartza hiltzea ez zen libro...

Ez zen libro, ez, eta heltzen zen basozaina ere, eta erraten zuen zakurrek zituztela ardiak hiltzen, han ez zela hartzik. Artzainak, ordea, ezetz. Hark ontsa bazekien! “Ikusiko duk, bai, ez dela zakurrik, baina bai hartza!”, basozainari erranez bezala. Eta uxaldia egin zen, eta hil zuten hartza. Argazki horretan duzu. JohaÑe Goienek bota zuen hartz hori.

Uxaldia “egin zen”, “hil zuten”... baina zu ere han baitzinen!

Bai, egia da, han nintzen ni ere. Artzainak bazekien hartza bazela, segur zen, eta ardiak ere hilak ziren. Orduan, ihizia ireki zelarrik, lagunak bildu genituen. Eta ez dakit nola deitu genituen ere, orduko denboran ez baitzen telefonoa, ez deus ere, baina lagunak juntatu ginen bederen. Lagun haietarik lau, argazkian dituzu; menturaz, beste bat edo biga baziren. Hala ere, ez ginen asko, anitz. JohaÑe Goienek bazekien non zen hartza, eta erran zuen: “Ni joanen nauk handik, eta huts egiten badut, zuek atzemanen duzue beste alde horretarik”. Eta



Anbroxi Burguburu Irigarai

URDATX-SANTA GRAZI, 1946



Laboraria, bizi guzia sortu zen herrian egin duenaren abantaila du: bertatik bertara ikusi du begien aitzineko mundua, eta bizi izan du mundualdia. Iragana eta oraina konstatzen ahal dizkigu. Iturriko ur garbia ez ezik, iturburukoa du Anbroxi. Xenta auzoko Elixaltia etxekoa aita, Kallako Aroztegikoa ama. 1967an –1968an, Itxaro Bordaren arabera–, hartz hilaren argazkiaren egile anonimoa. Eta beste.

hala. Baina Johañek ez baitzuen huts egin. Pun! Pun! Tiro egin, eta hartza hil zuen. Handik landa, basozaina etorri zelarik, Johañek erran zion: “Hau duk hire txakurra!”. Kar, kar...

Basozaina ez zen kontent izanen...

Ez, ez zen kontent, eta nahi zuen gu punitu, guri kastigua eman. Baina hartza hiltzean gurekin baitzen alkatea! Eta Johañe [Goien] hura ere zen kontseilari herrian! Potret horretan dira, Jean-Pierre Antxoldi –Antxoldi zuen etxea, baina Vidalaine sinatzen zuen–, eta Jean Xutahandi ere... Haien artean arranjatu zuten afera, eta nehork ez zuen puniziorik jaso. Orain ez litzateke posible hartza hiltzea, ez kastigu gabe libro ateratzea! Orain, kartzela genuke!... Hartzaz ari, oraingo hilabetean [agorri] hartzak 40 ardi hilak ditu Echon [Huesca]. Batzuk egin ditu berak hil, eta besteak jautsarazi. Eta San Martin Harrian ere ditu hiru hil, eta hamar badu falta artzainak.

Horrez landa, segur zara hartza hil zenuten egunaz.

Urte hartan bainintzen armadatik etxerat heldu. Hogei urtetarat heldu, eta joan nintzen armadarat! Lehenik Pauen izan nintzen sei hilabetez, eta gero Frantzia erdialdean, Creuseko departamenduan, La Courtine-n [Okzitania]. Aljeriako gerla [1954-62] fini baitzen, handik jinak izan ziren armadako gure nagusiak. Ez genituen maite, baina horrela ziren gauzak! Hamasei hilabete han egin, eta armadatik libro izan nintzen. Urte hartan hil genuen hartza...

Zer ikasi zenuen armadan?

Errespetua, behar dela jendeak errespetatu. Orain gazteek ez dute hura. Bazen errespetua, eta lotsa [beldurra] ere! Bestela, kartzela zenuen! Behin, aldi batez, izan ninduzun kartzelan. Oporretan nintzen, eta ez nintzen aski goizik etorri behar nuen lekurat. Beranta heldu nintzen, eta are!, zulorat! Xuxen ibili behar zenuen han.

Bestela, hemen egin duzu bizia?

Bai, bizi osoa hemen, etxe honetan [Elixaltia] berean, eta beti lanean. Haur ginelarik ere, lana zen hemen. Pilota pixka bat egiten genuen, bai, hala ere. Lagun asko ginen herrian, anitz. Familia guzietan biga edo hiru haur bazen. Edo gehiago. Eskolan gi-

nelarik, baginen 30 haur ere! Orain ez da eskolarik hemen, baina orduan bai, Xentan [Santa Graziko auzoa], eta Kasernan [ondoko auzoa]. Kasernan 60 haur baziren! Bi eskola bazen orduan Santa Grazin!

Egun, zenbat haur dira herrian?

Bost edo sei haur... Laborari guti bada hemen, gazteak hemendik landa joanak dira lanerat, baina ari dira itzultzen ere. Hemen nahi dute. Orain, gazteak ez urrun ari dira lanean. Gehienak, Zuberoan-edo. Badira lan-tegiak Atharratzen, Maulen, Oloroen... eta hemen dira gazteak. Lehen, Pariserat joaten ziren, edo Bordelerat... Gure aitzinekoak, berriz, Ameriketarat joaten ziren! Ene osabak-eta, aitaren anaia-eta, joan ziren Argentinarat! Handik landako jenerazioa Pariserat joan zen. Hemen lan guti, eta asko lan Parisen, eta harat joan ziren hemengo jendeak. Orain ez. Orain, bi urte-edo ikasi, eta jendeek badute lana, izan teknikari, izan bankan... Oloroen bada industria aeroespaziala, bada erietxea, eta jendeek ikasi eta han lan egin ahal dute. Horietarik ere bada hemen. Ez anitz, baina badira.

Zure denborara itzulirik, nola zen eskola? Eta errieta?

Errieta biarnesa zen! Eskolan ginelarik ez zen libro euskaraz mintzatzea, hitz egitea! Eskolatik landa euskaraz mintzatzen ginen, baina eskola barsean ez. Bazen paper ttipi bat, euskaraz mintzo zenari pasatzeko. Eta larunbat gauean hura bazenuen, punizioa: *Je ne parlerai pas en basque, ce mon devoir* beharko zenuen kopiatu 50 aldiz. “Ez naiz euskaraz mintzatu-ko, ene obligazioa da”. Eta, segur, nik ere bete dut punizioa! Eta ene anaia zaharrak ere bai. Lau urte zituen nik baino gehiago, baina harentzat punizioa berdin zen. Hura gero kolegiarat joan zen, ikasi zuen pixka bat eta bankan sartu zen Hazparnen.

Eta zu, kolegiara joan zinen?

Bai. Herriko eskola zen 5 urtetarik 14rat. 14 urtetan, eskola fini, eta estudioen zertifikatarekin joan nintzen kolegiarat, Mauleko laborari eskolarat. Bixta Eder. Han errieta euskaldunak ezagutu nituen. Apezak ziren, eta sotanarekin ere pilotakariak! Xarriton han ezagutu nuen, eta beste bat, oroi naiz, Etxeberria... Orduan hasi zen



hemen euskalduna amiñi bat azkartzen. Orduan hasi zen ETA ere. Mugimendu azkar bat bazen, eta apezak ere hor ziren, asko. Roger Idiart, Junes Casenave... Bata [Idiart] zen azkarrago; bestea [Casenave], isilago. Baina biak ziren zinez euskaldunak... Hiru urte egin nituen [1960-63] Mauleko Berrogaine-Larüntzeko kolegioan, laborari ikasten. Gero, etxean egin nuen lan.

Zer diozu hemengo kontrabandoaz?

Baina guti baitzen hemengo kontrabandoa! Arnoa, Ricard pixka bat, moskatela... hori zen hemengo kontrabandoa! Izabatic Belaguarat eramaten zuten, eta gero guk bizkarrean ekartzen genuen. Bizkarrean, edo zalditan, edo astotan... Hemen ere bazen arnoa, eta bazen Ricard, baina garesti! Han, hiru pintak egiten zuen hemengo baten prezioa! Gauari buruz egiten genuen kontrabandoa. Handik partitzen ginen, eta lau-bost oren egiten genituen bidean. Horrela egiten genuen biga, hiru egunetan, ondoko aldi bat artio. Gure gurasoen denboran, ronaren kontrabandoa egiten zuten. Nik ez dut rona ezagutu. Zahagian ekartzen zuten rona. Badakizu zer den zahagia?... Hogeita bi litro-edo baziren zahagian.



Armadara joan aitzinetik edo geroko aldia ari zara?

Bazen paper ttipi bat, euskaraz mintzo zenari pasatzeko. Eta larunbat gauetan hura bazenuen, punizioa: 'Je ne parlerai pas en basque, ce mon devoir' beharko zenuen kopiatu 50 aldiz"

Joan aitzinetik, 20 urtetan baino lehen egin nuen amiñi bat, pixka bat. Gero ere bai, baina erran dut, guti zen gure kontrabandoa, jende anitzek egiten baitzuen! Ez zen bizitzeko ateratzen ahal. Egia da bazirela egiazko kontrabandistak ere. Haiak zaldiak eta ardiak iragaten zituzten alde batetik besterat. Eta gerla denboran-eta jendeak pasatzen zituztela ere segur da.

Uste dut Junesi [Casenave] irakurri niola juduak ere pasatu zituztela hemen, Santa Grazitik Nafarroako aldera...

1945ean-edo izaten ahal da hori, ni sortu baino lehen! Baina ezagutu ditut lan hori egin duten pertsonak, passeur-ak [mugalariak]. Gero, finitu zen kontrabandoa... To!, ez dakit finitu den sekula! Kar, kar... Beti ere bada zaldiak edo ardiak edo... Baina arnoa eta horiek finitu zen aspaldian. Lehen, San Martin Harrian, bazen aduana, eta duanierrek kentzen zizuten karga. Botila bat edo biga haizua zen, libro, baina hura baizik ez.

Animalien larruak ere biltzen zenituzten...



ADRENALINA

"[Hartza hiltzetik libre atera zen] Santa Graziko Jean Xutahandi-Elgoien laboraria. 1968an, Kakueta eta Ehujarre arroilen tarteko eremu leizetsuan gurtzatu zuen abereari eskopeta kolpe zehatza bota zion. Izenik ez zuen hartz hau ere Artzaspasia xendan kausitu zuen bekoz beko. Orduko, hartzen hiltzea legez kanpoko ekina zen Frantzia. Ehiztariak bazekiten zigor potoloak ukaiten ahal zituztela, baina ehiza mota honek zainetan isurtzen zuen adrenalina atabikoaren indarra handiagoa zen". (Itxaro Borda, *Hartzaren itzala Pirinioetan*, idazleak.eus).

LABORARI SINPLEA

"Hemengo zen Junes Xuburu, Iriarte etxekoa, kantari azkarra. Eta azkarragoa Junesen askazi Bordaleku! Hemengo, Junes Casenave, Harigile etxekoa, Kalla kartierrean, pastoralgile handia. Hemen bizi izan zen aldi batez Txomin Peillen, Ibarburu etxean, idazlea... Famatuak dituzu! Anbroxi ez, Anbroxi laborari sinple bat da, bizi guzia hemen egina".

Azken hitza

SANTA GRAZI, EGUN

1960an 600 biztanle ziren Santa Grazin. 2021ean, 200 ez ziren. Burgoan, herriaren erdi den auzoan, hogeiren bat laborari, hogege landetxe, bost ostatu dira... eta hogeita lau bigarren bizitegi; Bordelekoak edo Landetakoak dira horien jabe nagusiak.

Marta-larrua [Lepahoria]. Nik ez nuen marta-larrurik bildu, ez ezagutu. Ene aitzinekoek bai, egin zuten. Ene aitak-eta, bai. Larru hura garesti zen, kario. Marta-larrua saldu, eta haren sariarekin ahal zen pantaloiak eta galtzak-eta erosi! Hala entzuten nien zaharrer. Orain ez da martaren ihizirik; ez diru egiteko, prefosta. Beti bada basurde, orkatz eta hola, baina lagunekin jateko baizik ez.

Anbroxi Burguburu Irigarai, 1946an Urdatxen sortua, laborari, ostalari...

Urdatx gure herriaren izen zaharra



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia
943 005 680 aholku.eus



mitxelena *Koop*
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus




duzu. Nik ez dut ezagutu izen hori. Saindua sartu zelarik, haren izena hartu zuen Urdatxek, eta horrela duzu Santa Grazi, aspaldi. Laborari izan naiz bizi guzian, laborari naiz oraino, baina gure laborantza ttipia baitzen, aterpea egin nuen, turismoarekin lanean sartzeko, turistak anitz heltzen baitziren. Orain ere badira jendeak, baina orain dela zenbait urte euskalduna ha-



Santa Grazin euskalduna gutitu da nabarmen. Lehen gehiago jiten ziren [euskaldunak], Bazkoz-eta. Jiten ziren Gipuzkoatik, Bizkaitik, Nafarroatik”

boro jiten zen honat. Euskalduna gutitu da nabarmen. Lehen gehiago jiten ziren [euskaldunak], Bazkoz-eta. Jiten ziren Gipuzkoatik, Bizkaitik, Nafarroatik... Guk, urte batez, aste santuz, ukan genuen aterpea dena hartua! Hori gutitu da anitz. Euskaldunak gabe, badira espainolak, katalanak, galiziar zenbait, Madrileko zenbait, eta hola. ●



Merkatu librearen mitoa

Erdi Aroan Jaungoikoa jaun eta jabe zen bezala, garai modernotan merkatuaren eta bere lege zurrunen menpe bizi gara. Goi mailako soldata erraldoiak merkatuak zehazten omen ditu; izan ere, Iberdrola edo BBVAko CEO-en sariak beraien arloko merkatuek finkatzen omen dituzte, nahiz enplegatu xume batek baino 300 aldiz gehiago zakura eraman. Arau hori argi geratu zen Rodrigo Ratori galdetu ziotenean zergatik zebiltzan aurrezki kutxak hain oker: “Merkatua da, adiskide”. Anartean, aurrezki kutxetako agintari gehienek etxera eraman zuten diru publiko eta pribatu ugari, eta horregatik, askotxok espetxean bukatu.

Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) gardenki esaten digu merkatu librearen bidez munduko ekonomia hobekiago egongo litzatekeela, kontsumitzaileak gaitasun handiagoa izango lukeela ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko eta enpleguan ere hobekuntzak ezagutuko liratekeela. Finean, egiaren alde bat bakarrik azalduko digu MMEk, ifrentzua ezkututzen duen bitartean.

Merkatua eraginkorra izateko, pertsona-langileek, merkantziek, kapitalek eta zerbitzuek oztoporik gabe mugitu behar dute munduan. Hori da ekonomia globalizatuak eskatzen duena, muga zergak desagertu behar dira eta arau juridiko, fisio-sanitarioak berdinu herrialdeen artean. Bestela, merkatuak ez dira eraginkorrak eta guztion kalterako da.

Merkatu librearen eraginkortasuna areagotzeko espazio ezin hobea EBkoa

Herrialde garatuek beraien arauak ezartzen dituzte, txiroen kaltetan. Baina, zer gertatzen da Txina bezalako herrialde bat ekoizten hasten denean gure merkantziak, kalitatez eta prezioz hobeto?

dugu. Halere, EBko merkatuan kapitalen zirkulazioak ez daude oztopoetatik at. Adibide garbia Talgo enpresaren afe-ran daukagu. Talgoren kapital sozialean sartzeko prest zegoen hungariar kapital funts bat eta jabetza berri hori bertan behera uzteko argumentu hutsala erabili dute: funts hori lotuta dagoela errusiar kapitalarekin eta Errusia “gaiztoen ardatzean” kokatuta dagoenez, nahikoa izan da euskal enpresatik kapital freskoa uxatzeko. Beste kasua Commerzbank (alemaniarra) eta Italiako UniCrediten arteko bategitea galaraztea izan da, nahiz biak EBko bankuak izan.

Merkantziek libreki ez dute zirkulatzen. Orain arte, MMEk behartuta herrialde oro, bereziki txiroak, merkantzien gaineko muga zergak arindu



BALAREN BAKAIKOA
EKONOMIALARIA

beharrean zegoen. Modu horretan, herrialde garatuak erraz sartu zitezkeen herrialde hartzaile txiroetan. Herrialde garatuek beraien arauak ezartzen dituzte, txiroen kaltetan. Baina, zer gertatzen da Txina bezalako herrialde bat ekoizten hasten denean gure merkantziak, garatuok baino kalitatez eta prezioz hobeto?

Kasu hori auto elektrikoetan, altzarugintzan, etxetresna elektrikoetan eta abarretan gertatzen da gaur egun. Ondasun guztien artean, deigarriena auto elektrikoena da. Autogintza errentagarriago izan zedin, EBtik edo AEBetatik Txinara lekuz aldatu ziren enpresa ugari; ondorioz, Txinan autogintza ikaragarri garatu da eta auto elektrikoak hementxo baino merkeago izateaz gain, teknologia eta itxura fisiko aldetik, gureak bezain erakargarri bilakatu dira. Horrela, EB edo AEBetako auto elektrikoaren industria babeste aldera, muga zergak ipini dizkiete auto txinatarrei: Kanadak eta AEBek %100 inguru, EBk %38...

Oraindik okerrago, adibidez, EBko enpresek, AEBen zigorrak saihestu gura badituzte, ezin izango diete makinariarik saldu Txinako enpresei, makina horiek AEBetan ekoiztutako osagai elektronikoak badituzte; hori guztia segurtasunaren izenean. Ezkutuan, Txinaren garapen ekonomikoa galgatu nahi dute, XIX. mendean Opioren Gerlekin gertatu zen bezala.

Ondorioz, epe laburrean bederen, geure arteko kontsumo neurrigabea murriztu liteke eta ingurumenak eskertuko luke. Ziur. ●

Hezitopia dinagu zain



**NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA**



PAULA ESTÉVEZ

Tomas Moreoren *Utopia* liburuko utopiarrek leitzea maite omen zuten. Hizkien bueltako hezkuntza onaren ondorioz, haurtzaroan hasi eta helduaroan ere aritzen ei ziren, inork manatu beharrik gabe, leitzen eta ikasten eta gehiago leitzen. Pentsa, aisialdia horretara emanak bizi zuten denbora, plazer hutsez ilustratzen. Utopia uhar-teko barrideen apeta horri gaur *lifelong learning* erraten zaio eta ametsei utopia, minuskulaz.

“Ezein toki” eta, bide batez, “toki ona” ere bazen irlakoaz geroztik, utopia parrasta idatzi da eta ez denak, zorionez, hain ohiko zaigun utopiaren ulerkera egingaitz baten araberan. Izan ere, garaian garaiko *statu quo*-a eta orotariko dominazio formak iraultzeko emandako hezkuntza proiektu kritikiko franko ere, egingarri eta inarrostaila aritu direnak, utopia huts zaizkigu egun.

Afera da, ikasturte berri distirant baten abiatze honetan, komeni dela jakitea hezkuntza publiko eta doakoa utopia bat baizik ez zela Manifestu Komunistak jaso zuelarik. Eta Clara Zetkin-entzat hezkuntza askapena izan zitekeela eta eskola, aldiz, iraultza, eta hortaz, sutsuki aritu zela haurtzaindegi laikoan defentsan. Eta Aleksandra Kollontai-k, zenbait urte lehenago haurren hazkuntza kolek-

tiboaren utopia ematera ausartua zena, emakume langileen umeen zaintzarako sare sozial profesionalizatua antolatzea izan zuela bere lehen ardura politikoe-tako bat. Eta Nadezhda Krupskaja-k jakintzak trebetasun eta ezagutzak ekin-tza bilakatuko zituen eskola berri baten utopia paratu zuela abian.

Demagun, guretako utopia dela justizia sozial, berdintasun eta askatasun maila handiagoetan bizitzeko proposamen harmoniatu bat. Eta, demagun, ezarritako gauzen egoera erreproduzitzeko nahia duen eskolaz kontrara, pertsonen, kulturen eta herrien emantzipazioa bilatzen duen horri erraten diogula guk hezkuntza, naturarekin batean ibiltzeko gai denari, jostagarria eta sormenzalea denari, zaintzaren pedagogia egiten duenari, klase kontzientzian zangoak pausatzeko ahalkerik ez duenari, gorputzak norma patriarkal burgesaren arabera bezatu nahi ez dituenari. Finean, garai bakoitzak harekin dakarren zapalkuntza zakutoari aitzin egiten dion horri erraten diogula guk hezkuntza utopia; *hezitopia*.

Italiako Barbiana herriko ikasleek zioten, maistra anonimo bati idatzitako gutun haietan, kontsolamendu errazena dela historia patu gisara leitzea eta, aldiz, klabe politikoetan leitzea dela egiaz-

ki aztoragarria. Ba pedagogiarekin berdin. Eta badakigu pedagogia aztoragarri eta politikoki kritikoa egitea badela hezkuntza neutraltasunaren falaziaz gandi aritzea, badela ere patioko lurtean klaroner bide berriak marraztea eta horietan barrena paseietan aritzeko ausardia biltzea. Gu baino lasterrago gogor saiatu denik izan da. Gaur ez lirudike garai onenak direnik hezkuntza utopientzat, alta, beharrezkoak ditugu, inoiz ez bezala ez bada, bai, seguruena, beti bezainbertze. Behar ditugu gaur eskolarako amets berriak, bizipoz, asanblada, kultur sorkuntza, iritzi kritikoa, irakurketa, antolaketa, begirada berri, elkarrizketa, eskubide eta elkar zaintza forman materializatu-k direnak.

1952an Ruth Krauss-ek Rowayton eskolako Haur Hezkuntzako haurrei euren mundu-ikuskerara aditzera emateko aukera luzatu zien orotariko galdemuak pausatuz, gero, erantzunak liburu ausart eta garairako utopiko batera ekarri zituen. Munduaz eta erlojuez erran zizkietenak honatx, gaurkoaren ondorio gisara: “Mundua da gu bere gainean zutitu ahal izateko”; “Erloju bat da tik-tak nola egiten duen aditzeko”.

Ba horixe, erakustun jende hori, etortzearen den iragana dugula zain. Tik-tak-tak... ●

On Ángel!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Goiburu hori soilik irakurri eta ezinezkoa nor den edo nor zen asma-tzea, baina bazen nor!

Ángel González Olvera, Mexikon ezagutu genuen duela 11 urte bertsolariok hango inprobisatzaileekin jardunaldi batzuetara gonbidatu gintuztenean. Mendi gain batean bizi zen, hango txori, uso, usapal, triku, azeri, basurde... elikatuz. Trobadore fina, apala eta langilea, kantatzen zekiena nekazariei eta artzainei sentimenduz eta bizipen propiotik inork ez bezala bertsotan, bizitza bere eguzki eta ekaitz, ote eta goroldio. Auskalo zenbat *topada* egin zituen (bi laukote nor baino nor, bi biolin eta bi gitarra normalean, zaletuak musikaren erritmora dantzan zirela) egunsentira arte, garaiko trobadorerik entzutetsuenekin. Palomas (Xichú eskualdea) izeneko komunitatean bizi zen Leonila Oviedo bikotekide eta seme-alabekin. “El Huapango Arribeño” deritzona da, Xichú mendizerran, Queretaron eta Potosi erdigunean gehienbat, gauzatzen dutena troberoek, eta berak, natural lotzen zuen menditar nekazari izatea eta huapangoa. Aitak abereak larratzeko agindu eta, egun batez, aginduei ez entzuna eginda, eskolara joan omen zen hiru orduz eta bokalak ikasi omen zituen. Gainerakoa, eta ez gutxi, bizitzaren unibertsitatean.

Bera zen bezalakoxea, umila, bene-

takoa eta bertakoa. AEBetara zihoazen mexikarrei honela kantatzen zien: *bai, bazoazte handitasunaren bila, urrea irabaztera, auskalo itzuliko zareten. Han esku zabalik hartuko zaituztete, nork landuko du bada lurra? Nork ereingo frijioleak, artoa...? Lurrak emandakoa jatekotan, mexikarren beharra dute!*

Hitzaldi batean bere ibilerak kontatu zizkigun, egunean laurogeitaka kilometro egin zituela askotan, 19 urte zituela aitak erositako gitarra harekin. Begiak lausotzen zitzaizkion garai eta egoera hura birgogoratzean. Hala kontatu zigun, *topada* batetik bueltan mendi-bideetan zetozela, gose eta egarri, borda batean ezer jatekorik edo ba ote zuen galdetu omen zioten etxeoandre bati, eta hala zeozer jan eta gero, eskertze aldera, kantatzen hasi omen ziren. Konturatzeraiko negarrez ari zen emakumezkoa, eta malako haien zergatia jakin nahirik, beregana hurbildu zenean hala erantzun omen zion: *hemen ikusten duzu zertatik eta nola bizi garen eta astero feriara barazkiak hartuta joaten naiz haiekin diru pixka bat atera eta etxean behar dudana erosi ahal izateko. Astoarekin egin izan dut joan-etorria, baina joan zen hilean akabatu zen eta zu kantuan hasi zarenean, astoaren arrantza gogorarazi didazu! Barre egiten bazekien, baita bere buruari ere!* ●

Bira osoa



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Sandra Cisnerosek idatzitako *The House on Mango Street* mugaldekoko liburuan pertsonaia baten txakurak bi izen ditu: bat, espainolez; bat, ingelesez. Beharbada kontu harrigarria gerta liteke lehen begiratuan, baita liburu baterako ere, baina lasaiago pentsatuz gero ohartuko gara izen bikoitzez beteta dagoela mundua. Eta ez naiz ari Vitoria-Gasteizez edo Iruñea/Pamplo-naz... Edo ez, hobeki esanda, gurean tradizio ezberdinak sortu dituzten bikoteez bakarrik.

Hor ditugu, konparazio baterako, behinolako Konstantinopla eta oraingo Istanbul, zibilizazio kristaua eta zibilizazio islamikoa. Edota Falklandak eta

Malvinak, mundu angloa eta mundu hispanoa –Euskaltzaindiak, bidenabar, biak onartzen ditu maila berean: Falkland uharteak/Malvina uharteak–. Halaber, euskarazko Wikipedian ageri den Cook mendiak Aoraki du jatorrizko izena, eta hiztunaren nahiz solaskidearen arabera alda daiteke izendatzeko era; kasu horretan, Zeelanda Berrira joandako europar kolonizatzaileen ikuspegia eta bertako maorien ikuspegiak ditugu aurrez aurre.

Hala, eguzkiak argitzen duen denborari “egun” deritzogu. Eta ilun dagoen zatiari, berriz, “gau”. Lurrak nahiko denbora izan dezan bere ardatzaren inguruan bira osoa egiteko. ●

Popuerzakoa



JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Irailko igandeetan ohitura da gure inguruetan Erniora igotzea, Zelatunen dantzan aritzea eta txorizo muturra, edo, jatea. Eguraldi txarrenaz ere ez da jenderik falta izaten. Aurten lagunak goizago abiatu eta ni berandututa, bakkarik nindoan estratan gora, beherantz zetozen kuadrillekin topatzen. Gehienak gazteak eta euskaldunak. Euren artean maizen entzuten zen hitza: *enplan*.

Pasaeran agurtu egiten nituen: *Egun on, Ariyo...* Baina buru jostakinak ziriketara agindu eta batzuei *Egun on Jainkoak* esan. Haien harridura: nondik atera da Erdi Aroko ale hau? Ni barru barrez, oldozten euskaldunak jainkojale handiak izatetik ateo-agnostiko-sinesgabe-ezaxola-eszeptiko komunitatea izatera hain epe laburrean nola pasa garen. *Zeruko Argia*-tik ARGIA soilera. Ederki dago. Hainbeste urtez Jainkoa uneoro aipatzeak enpatxua eta oka egiteko gogoa eragin ditu.

Pertsonok badakigu asmorik ederrenak usteltzen. Jainkoaren izenean zenbat infernu sortu, demokraziarenean zenbat diktadura, justiziarenean zenbat sarraski, bakearenean zenbat gerra, maitasunarenean zenbat gorroto...

Asmo handien izenean, nire adine-

Ni barru barrez, oldozten euskaldunak jainkojale handiak izatetik ateo-agnostiko-sinesgabe-ezaxola-eszeptiko komunitatea izatera hain epe laburrean nola pasa garen

kook itxaropen handia jarri genuen, hurrengo belaunaldiak euskalduntzeko eta ongi hazteko, hezkuntza sisteman. Zaputza. Urteak pasata, kezkatuta gaude gazteen portaerekin: erdaraz mintzatzten ohi dira eta dituzten ohiturak arduratzeakoak dira, ia-ia zaharrenak bezain aldrebesak. Hala ere, gazteen artean milaka aritzen dira munduko ahulenei laguntzen, medikuak, ingeniariak, sukaldariak, marinelak... Eta tesiak euskaraz idazten dituzte. Dudarik ez: oraingo gazteak ez dira gure garaietakoak baino okerragoak, agian apur bat hobek.

Murchanten ume baten gurasoei omenaldia egin diete hari herriko patrioiaren izena, Roke, jarri diotelako. Garrantzizko kontua izenarena, ume bakoitzarena parkean berrehun aldiz errepikatu behar baita, ahal dela ozen, ingurukoek ongi entzun dezaten, Disneyk patentatutako doinu fazatiaz. Niri kalean, ahots lakarrez, gehienetan *ume zikin arraioa* esaten zidaten.

Haurrak ez dira tontoak, soilik haurrak dira. Gure axolagabekeria eta inozokeria da haien eskasien kulpante. Benetako hezkuntzarako osagarri nagusia den eredu ona, ez diegu eskaintzen.

Zuzentzen hasi behar. Ze hezkuntza sistema erabiliko? Zorrotza... eta samurra. Nola deituko? Baietz, kontu garrantzitsua dela, tabernari *gastroteka* esanda, basoerdia garestiago kobratzen baita edo Rokerena bezala, omenaldirako aukera. Badatorkit... *Derrigorrezko hezkuntza!* Harrapatua dago baina! Hobe Frai Bartolome Santa Teresa markinarrak gustuko zuen hitzez: *Popuerzakoa hezkuntza*. Popuerzakoa da Erniora igotzea.

[Popuerza gaztelaniatik datorren esamolde-kalkoa da, "por fuerza"-tik erakarrria]. ●



“

**Kontatzen ez bazara,
kontatzen zaituzte.**

Katixa Agirre

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez **Jakinkide**

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin _____ dabilen
pentsamendua

“Arkitektura pedagogikoaren ikuspegitik, sistemaren zulo beltza institutuak dira”

Ikastetxetako patioen eraldaketak ugaritzen ari diren arren, oraindik eraikin zaharkituak eta azpiegitura zurrinak dira nagusi hezkuntzan (barruko nahiz kanpoko espazioetan), gustura ikasi, mugitu eta harremanak izateko, pedagogia hezitzaileak garatzeko behar diren espazio, diseinu, estetika eta altzarrietatik urrun. Zaintza beharrean kontrola lehenesten duen arkitektura dugu eskoletan, eta hori aldatzeko erronkan tematuta daude Fermin G Blanco eta Clara Eslava arkitektoak.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  UNAI BEROIZ

Ikastetxeak leku bizigarriak izan daitezzen, espazio arin, natural, malgu eta organikoak izan beharko lukete, baina ez da hala. Eskola garaikidea ingururakiko (herriarekiko, auzoarekiko...) deslotuta eraiki da, anonimo, egitura homogeneo, lineal, industrial, sistematizatu eta errepikakorrekin, eta gainera, asko eta asko zaharkituta geratu dira. Hala diote gure bi solaskideek, arkitektura pedagogikoan adituak eta arituak diren Fermin G Blanco eta Clara Eslava: “Eskoletan onartzen ditugu gaur egungo etxe batean onartuko ez genituzkeen eszenatokiak, zeren urteak pasa ahala etxean aldatzen ditugu altzariak, gortinak, koloreak... eta lortzen dugu espazioek beste zerbait transmititzea”. Instituentzat da notarik txarrena: “Zaintzek duten garrantziaren ideia galtzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nerabea ikusten da kasik arerio gisa, kuestionatu egiten zaituen norbait, eta horri gehitzen zaio ikasle-ratioak handitu eta makroinstitutuak egin ditzaiegula”. Emaizta, kontrolatzeko eta diziplina lehenesteko pentsatuta dagoen diseinu arkitektonikoa.

Horren ordez, gauza asko egin litezke

“Eskola estetikoak baldin bada –armonikoa, koherentea, anitza... ongi sentiaraziko zaituena–, mezua da ‘hemen pertsonak zaintzen ditugu’. Itsusitasun handiko espazioak ditugunean, aldiz, mezua da ‘ez zaituztegu zaintzen’”

Clara Eslava

ikastetxe barruko esperientzia hobetzeko, argi eta aireztatze naturalari dagokionean, zoru motan, barrua-kanpoa lotzeko egituretan, akustikan, altzarien diseinu eta materialetan, tenperaturaren, ikasgelaren forman –zergatik ez kurboa, organikoa, borobila?–, gardentasunean... “Eskola estetikoak baldin bada –armonikoa, koherentea, anitza... ongi sentiaraziko zaituena–, mezua da ‘hemen pertsonak zaintzen ditugu’. Itsu-

sitasun handiko espazioak ditugunean, aldiz, mezua da ‘ez zaituztegu zaintzen’”, dio Eslavak. Gainera, jaiotze tasaren beherakada aukera bat da, ratioak txikitu eta espazio berriak konkistatzeko, azaldu du Eslavak, “baina kontrakoa ikusi dut, haur kopurua murriztu eta gela bat libre duen eskolak gela hori giltzaz ixtea, ezin duelako egon zaintzailerik gabeko espaziorik”.

Eurek gidaturiko adibide positibo bat azaldu dute. Larrantzarreko ikastetxean, jangela aldatu dute: kromatikoki armonikoa, akustikoki errespetuzkoa, bestelako zoru batekin, leihoak zabalik Ultzamako paisaia sar dadin... “Beste leku batean zaude orain, sentsorialki eta mentalki ere bai, eta paradigma aldatzen duzu; haurretako batek esan zigun, ‘orain ikastetxean gaizki dagoena gainerako gutzia da’”.

Ekarpena egiten duten heinean, obra txikiekin, altzari aldatetekin edota han eta hemen egindako diseinu berriekin konformatu behar; izan ere, dena aldatzea ezinezkoa da, ikastetxeek baliabide gutxi dute eta administratibotik ez da horretan inbertitzen, ez da inolako apusturik egiten, kexatu zaizkigu solaskideak,





LUNAI BEROIZ



BLANCO ETA ESLAVAK UTZITAKO ARGAZKIAK

“Patioak berdetzeko eta naturalizatzeko prozesuetan esaterako garai interesgarriak bizi ditugu, aitzindarien garaia, asko dagoelako egiteko”.

“eta hori da inportanteena, aldaketarako nahia izatea eta horretan inbertitzea; patioak berdetzeko eta naturalizatzeko prozesuetan esaterako garai interesgarriak bizi ditugu, aitzindarien garaia, asko dagoelako egiteko”, dio Blancok, baina oharra ere egin du, artikuluan aurrerago ikusiko dugunez beste eremu batzuetan gertatu dena gogoan: “Une bat iritsiko da non, negozioa usainduta, enpresak sartu eta patioen proiektua aurrez diseinatuta eskaintzen hasiko diren, bizpahiru aukera aurrekontuaren arabera, eta ideia perbertituko dute, jada eginda dauden patioak erostera bultzatuko dituzte ikastetxeak, hezkuntza-komunitateak aurrez pentsatu eta gogoetatu gabeko patioak”.

ARKITEKTURA DEFENTSIBOA

Nahiz eta patioa eraldatzen ari diren ikastetxeen albisteak han-hemenka irakurtzen ditugun, eskola gehienek jolas-tokia oraindik hormigoizko zoru monokromatikoa da. Eta gero eta gehiago eskatzen da eraldatu daitezela psikomotritzitatea sustatzen ez duten patio horiek, genero ikuspegitik desorekatuak direnak, klimatikoki kaltegarriak; natura sartu nahi dute, oreka-jolasak, bestelako zorua... baina garbi dio Blancok: kontrako inertzia da nagusi eta oraindik erresistentzia handia dago administrazioaren aldetik, aldaketan inbertitzeko. “Harrituko zinateke, zenbat ikastetxe ez duten berdin pentsatzen eta ez duten patio berderik nahi. Niri ikastetxe batzuetan esan izan didate ‘ez dugu patio inklusiborik nahi’, pentsa! Orduan zer nahi duzu, patio baztertzaille bat?”.

Atzean arkitektura defentsiboaren

“Badaezpada umeak min har ez dezan nahi dugu dena ongi lotuta eta itxita eta kautxuzko zorua azpian, hondar-guneak desagertu dira zikindu ez daitezten... Arkitektura defentsiboa egiten da, hots, pedagogia defentsiboa: antipedagogia”

Fermin G Blanco

itzala dagoela dio arkitektoak. Defentsiboa, abiapuntua delako salaketak eta keak saihestuko dituen diseinua, ahalik eta mantentze lan gutxien eskatuko duen arkitektura. “Oraintxe egon naiz ikastetxe batean zuhaitz inguruak hesituta dituztena, arriskua saihestea argudio; badaezpada umeak min har ez dezan nahi dugu dena ongi lotuta eta itxita eta kautxuzko zorua azpian, familien eskakizunei tiraka hondar-guneak desagertu dira hiri eta eskoletatik, zikindu ez daitezten, edo dena sintetikoa izatea nahi dugu... eta mantentze-lanak aurrezteko, bada zuhaitzak nahi ez dituenik, hostoak jaso behar ez izateko, edo zelai artifiziala hobesten dutenak, ureztatu eta moztu behar ez izateko; ezin duzu imajinatu zenbat ez diren gai zelai artifizialaren eta naturalaren artean ezberdintzeko”. Sakonean, dio Blancok, arkitekturatik harago pedagogia defentsiboa da, “antipedagogia”.

BOTA PARETAK, ALTXA AULKIETATIK

“Hormen atzean ezkututzen da eskola, eta horma horiek apurto behar ditugu –aldarrikatu du Clara Eslavak-. Literaliki, hormak botatzen ari gara uneotan ikastetxe batean, ikasleek Arga ibaia ikusi ahal izango dute hemendik aurrera, baina hormak bota ala ez bota, hormatik harago begiratzeko borondateak egon behar du, bestela ez du zentzurik”.

Barruan ere, ikasgelen arteko hormak bota dituenik bada [ikus 31. orriko koadroa], eta positibotzat jo dute solaskideek, espazio diafanoak eta malgutasuna dakarten heinean, baina ohartarazi dute proiektu arkitektonikoak proiektu pedagogikoaren eskutik etorri behar duela: horma bota eta espazio zabalagoa badugu, zertarako baliatuko dugu? Espazio berria partekatzen badugu, ikasle gehiago eta harreman gehiago izateak ekarriko dituen aldaketak nola gestionatuko ditugu? Konfort akustikotik zarata handiagora igarotzen bagara, zer dugu pentsatua? Irakasle bat baino gehiago arituko dira espazio partekatuan? Eta nola? Sortuko diren dinamika berrietara egokitu dugu ordutegiak (45 minutuko ikasgaiari ordu eta erdiko tartea emanez, adibidez)?... “Behin baino gehiagotan ikusi dut nola bi ikasgela hartu, erdiko tabikea bota eta enpresaren batek saldutako kit super lilurgarriarekin betetzen duten espazioa, baina eskolako gainerako guztia berdin mantenduta –kritikatu du Blancok-. Azkenerako, daukazuna da gela berezi bat, ikastetxe guztiz konbentzional batean. Pena hori da, berez onak diren ideia eta proiektuek sarri modu kasik anekdotiko

eta tristean inplementatuta bukatzen dutela eskoletan”.

Paretak botatzea, besteak beste, mugikortasunerako aldarri bat da, hain justu eskolari egin ohi zaion kritiketako bat badelako maiz ez duela mugitzeko aukera handirik ematen. “Ikasgela da oinarritzko unitatea eskolan: bertan ixten zaituzte eta kito; modu autonomoan sartu-irten daitezke ikasleak? Konfiantza ala kontrola gailentzen da halakoetan?”, gogoetatu du Eslava, eta gaineratu du hezkuntza sistemaren logikari erantzuten diola egiturak: “Ikasle guztiek gauza bera eta aldi berean egin behar dute, mahaian gelditu eta isilik. Malgutasun handiagoz jokatzeko den eskoletan, proiektu beraren inguruan erritmo ezberdinetan ekintza ezberdinak egin ditzaketenean adibidez, autonomia eta mugikortasuna errazten da”.

Batzuetan, jolas garaia bera ere ez da sobera estimulatzailea. “Egon berri naizen ikastetxeak saskibaloiko saskiak eta futbolerako atek baino ez ditu, ez du bestelako jolas elementurik, ez txirristarik, ez toboganik, ez orekarako

“Aldaketa ongi dago, baina aldaketa oinarritzen da aurrez prestatuta dagoen hori erostean baino ez. Guk beste era batera funtzionatzen dugu: ikastetxean pentsatu eta adosturikotik plan bat ateratzen da”


Clara Eslava

enborrik, ez zaburik. Oso gogorra da hori”, salatu du Blancok.

NONDIK HASI?

Bestelako diseinu, eremu eta estetikak irudikatzeko ausardia eta imajinazioa falta al diren galdetu diegu solaskideei.

“Falta dira proiektuak. Behar batetik abiatuta, arkitekto irudimentsu eta jostarietara joz gero ziurrenik planteamendu ederrak sortuko dira: eskailera azpian hau eta beste jarri, beste txoko honetan halakoa egin... baina arazoa da behar bat dagoenean obra zuzenean enprekin lotzen dela, behar hori merkeen konponduko dizun enpresa kontratatu eta aurrera, bestelako espazio eta diseinuak sortzeko aukera baliatu barik –erantzun digu Blancok–. Dauden gabezia eta beharren atzean, guk aukerrez betetako mundu bat ikusten dugu, baina horren ordez, adabakia adabakiaren atzetik doaz arazoak estaltzen”. Azken finean, iturri bat, eskolako sarrera, pasilloak, laborategia, ate bat... “Dena izan daiteke proiektu baterako aukera, espazio eta elementu txikiekin ere jolastu daiteke, edertu eta hobetu, ñabardurak, detaileak eta elementu jostariak gehituta, estetika aldatuta... Eta guztiak egiten du ekarpena, hoberrak”. Eslavaren hitzetan, horrek guztiak egiten duen ekarpen handia pertsonen zaintza da.



“Jo dezagun komunetara, adibidez –gehitu du Eslavak-. Pentsa, ura, ispi-luak, iturriak... Leku eder askoak izan daitezke, joko handia eman dezaketena, besterik ez bada landare bat jarri eta ureztatzeko, baita genero ikus-pegitik Haur Hezkuntzan hezkidetzaz lantzeko ere, baina ez dago halakorik”. Beste adibidea Blancok eman du: hobi bat egin zuten ikasgela batean, bai, zulo handi bat, eta irakasleak hasieran apur bat galduta zeuden, zer egin hobiarekin? “Ez baitago hobei buruzko ikasgairik, kar, kar, kar, baina halako urratsak ematera animatzen direnak izan ohi dira aktibatzen lehenak, lehenago edo geroago asmatuko dutenak nola baliatu”.

Arbizuko eskolan altzariei lotuta euren egin duten proiektua ere aipatu dute. Mahai karratuak hexagonalengatik aldatu dituzte, altuera ezberdinetakoak –“haur denek ez baitute altuera bera, nahiz eta sarri mahai guztiak altuera berekoak jarri”–, eta koloreztatzearaz gain, errusiar panpinen antzera jasotzen diren aulki eta mahaiak ezarri dituzte. Helburua, behar ez direnean modu erraz eta ederrean bazter batean pilatuta utzi ahal izatea eta hala espazio erabilgarri asko lortzea: “Zorua berreskuratu dugu Arbizun”.

Arazoa da, Fermin Calvok dioenez, 1980ko hamarkadatik apenas aldaketarik izan duen katalogoan oinarritzen direla ikastetxetako altzariak. “Orain katalogoetan badago ‘Montessori’ leerroa, material organikoak, egurrezkoak-eta nahi dituzten irakasleentzat, baina altzari horiek Haur Hezkuntzara iristen dira gehienez. Eta beste leerro bat dute, ‘etorkizuneko ikasgela’ (Ikasnova, Aulanova, Ikaslab...), denak igualak, homogeenak. Guk gomentatzen diegu katalogotik har dezatela

“Dauden gabezia eta beharren atzean, guk aukerez betetako mundu bat ikusten dugu, baina horren orde, adabakia adabakiaren atzetik doaz arazoak estaltzen”

Fermin G Blanco

interesgarria eta beharrezkoa baino ez, gainerakoan hobe dela dagoena tuztezea edota beste enpresa batzuetara jotzea”. “Etorkizuneko ikasgelaz eta berrikuntzaz dihardute, ‘nolako hezkuntza espazioa nahi duzun pentsatu’ esaten digute, baina Bruselatik zuzenean datorren katalogoa ematen digute, parte-hartze prozesurik gabea, enpresa teknologikoen interesen arabera –gehitu du Clara Eslavak-. Aldaketa ongi dago, baina aldaketa oinarritzen da aurrez prestatuta dagoen hori erostean baino ez. Guk beste era batera funtzionatzen dugu: ikastetxean dauden beharrak, aukerak, soluzioak gogoetatu eta plan bat aurkezten diogu udalari, taldean pentsatu eta adosturikoa atera dezan lehiaketara”.

IKASTETXE HONETAKO PATIOA BAI, BESTE IKASTETXEKOAK EZ?

Arbizun aldaketa gehiago egitea proposatu zutenean, “esaldi beldurgarria” iritsi zitzaizen administrazioako kide batzuen partetik, dio Eslavak: “Hauei

zerbait ezberdina ematen badiegu, besteek ere nahiko dute”. Alegia, batetik, ikastetxe hori hobetzea faborezko tratua litzatekeela gainerakoan aldean, eta bestetik, ikastetxe gehiagok eskatuko litzatekeela aldaketak eta ez zegoela denentzako aurrekonturik. Horrek ez ezer egitera daramala-eta, hitz magikoa deskubritu digu Eslavak: esperientzia pilotua. “Egin ditzagun esperientzia pilotuak, horien segimendua eta balorazioa, eta pixkanaka aldaketak inplementatzen joan gaitezen leku guztietan. Abiapuntu on bat da, adibidez, zailtasun handienak dituzten ikastetxeak edo egoera okerrean daudenak berritzen hastea”.

Ildo horretan, azpiegituren mapa bat beharrezkoa dela uste dute solaskideek. “Oso zaharkituak eta adabakiz josiak dauden ikastetxe asko aurkituko genuke, eta mapa abiapuntu ona litzateke eskola bakoitzaren plan estrategikoa egiteko: nondik hasi, zein diren lehentasunak. Zeren ari gara hitz egiten eskola idealak nola izan behar duen, baina aldi berean umeak ditugu ikasgelan hotza (edota beroa) pasatzen. Kontua da teknikoki konpondu beharreko arazo horiek baliatu behar liratekeela bestelako aldaketa espazial, arkitektoniko eta estetikoak egiteko, aipatu dugun bidetik”.

Gasteiz jarri dute adibide: udala ari da ikastetxe publiko guztietako patioak naturalizatzen –“ingurumenaren ikus-pegitik, baina jolasari, pedagogiari... ere on egingo dio aldaketak, ezinbestean”–, eta bidea hori dela azpimarratu dute bi arkitektoek, hiri politika bati erantzuten diolako, sare osoari eragin- gogoz diolako. Azken finean, ikastetxean ordu asko iragaten dituzte haur eta gazteek, “eta eskolan ongi bizitzea gauza handia da”. ●

FINAL-LAURDENAK

AZKOITIA

 Urriak 26, larunbata, 17:00
 Baztartxo Antzokia

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

IRUN

 Urriak 27, igandea, 17:00
 Ficobako Auditoriuma

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024



Utikan hormak ikasgeletatik

Horixe da duela zazpi urte kaleraturiko erreportajeari jarri genion izenburua. Arrasateko Arizmendi ikastolan egindako aldaketa arkitektonikoak genituen hizpide, planteamendu pedagogiko bati erantzuten diotenak: konfiantzaren pedagogia. Eraikinetara egindako bisitan, aurkitu genituen eremu ireki, zabal eta diafanoak, paretarik gabeak, ludikoak, koloretsuak, beirate handiak, komun mistoak Haur Hezkuntzan, harmailadun anfiteatro bat Lehen Hezkuntzan... “Gelaren logika desagertzen da eta jada ez daude gelak, espazioak baizik; maila guztietan errepikatzen den eskema da. Horrek ikasgela bat = irakasle bat dinamika puskatu du, irakasle

bat baino gehiago daude eremu berean, espazioetan bilatu dugun gardentasuna lotuta dagoelako hurbiltasunarekin, besteak gertu sentitzearekin, uneoro begi-bistan. Zailtasun bat sortzen den momentuan (konpetenziala, emozionala, fisikoa...), irakasleak presente daude eta garrantzitsua da, gure artean konfiantza harreman bat garatzeko”, azaldu zigun Amaia Antero irakasleak. Irakasleak elkarrekin lan egitera ere bultzatzen ditu antolaketa honek, “eta horrek dakar euren artean gehiago adostea, haurrenganako begiradak anitzagoak izatea, egoeraren ikuspegi bat baino gehiago bateratzea...”. Halaber, aukera anitzeko eta egitura malguko espazioek irakasle tal-

deka, proiektuka, txokoka aritzeko aukera ematen dute, “egitura kooperatiboan jardutea delako gure oinarri nagusietako bat”.

“Espazioa irekitzeak ez du esan nahi dena libre denik –zehaztu zuen Anterok-. Kontua da espazio horretan zer egiten den, eta kaosa egongo da ikas-prozesua gidatzen ez bada, baina gela itxian gauza bera gertatu daiteke”. Are gehiago, “haur, guraso eta irakasleek aho batez berresten dute gatazka kopurua jaitsi egin dela, irakasleak lasaiago dabiltzala espazio zabal hauetan”. Gainera, eskola txikietan bezala, adin ezberdinetakoak aiseago nahasten dira, txikiagoek zaharragoengandik ikasten dute, eta alderantziz. ●

 DANI BLANCO



“Batzuetan beldurra ematen du zer datorren galdetzeak”

Xumea, alaia eta energia handikoa da Olga Garate (Iruñea, 1964). Bizikletan ibiltzea dauka pasio eta familia da bere lehentasuna. Erizain laguntzailea da, eta lana “izugarri” gustuko duen arren, behin betiko lanerako ezintasuna eman diote, minbizi kronikoa duelako. Prozesu onkologikoaz eta Osasunbidean izandako arretaz mintzatu da.

 OLAIA L. GARAIALDE

 OLAIA L. GARAIALDE ETA OLGA GARATE



Olga Garate

Duela zortzi urte bizkarraren albo batean hasi eta barera zabaltzen zen “ikaragarritzko mina” sentitzen hasi zen Olga Garate: “Larrialdietara joan, eta esan zidaten hainbeste larrialdi egonda zergatik joaten nintzen haize batzuen-gatik. Bat-batean, egun batetik bestera ikaragarritzko minbizia zen”. Hilabeteak pasa ziren eta mina handituz joan zen “jasanezina” izan arte. Ohiko medikua bajan zegoen, eta egunero medikuz aldatzen zioten. Azkenean ekografia bat egin zioten: “Medikuak esan zidan: ‘Barean orban batzuk atera zaizkizu, baina ez egin kasurik’”. Txostena eskatu eta larrialdietara igo zen. Behin eta berriz probak egiteko eskatu ostean, linfoma bat zuela esan zioten eta ospitaleratu egin zuten.

Ordutik aurrera, denbora luzez ingresatuta egon da, proba ugari egin dizkiote eta kimio saioak egunero. Kimioarekin hasi eta urte eta erdira, lanean hasi zen larrialdietan: “Pandemia osoa lanean egon nintzen, akigarria zen”. Garai ho-

“Medikuak esan zidan: ‘Barean orban batzuk atera zaizkizu, baina ez egin kasurik’”

rretan arriskuko pertsonak zirenei gaxo agiria ematen bazieten ere, Garatek ez daki zergatik ez zioten deitu. Halere, ez zuen deus esan, lana ihesbide bat zelako: “Hasierrek, gure semeak, desgaitasun altu bat dauka. Zentro batean ingresatuta dago, eta pandemian zentroa hilabete itxita egon zenez ezin genuen ikusi. Bideo-deiak egiten genituen arren, burua estaltzen zuen haserre zegoelako. Ematen zuen abandonatu egin genuela”. Hori egiten zitzaion zailena, semearekin ezin hitz egitea eta nola erreakzionatuko zuen pentsatzea.

Urte batzuk lanean eman ostean, duela bi urte mediku-azterketara joan eta esan zioten guttiz desagertua zela min-

bizia: “Lagunekin, familiarekin, mundu guztiarekin ospatu nuen”. Hurrengo egunean, lanean zegoelarik, iraganean izandako min bera sentitu zuenez, larrialdietara joan zen. Bertan, esan zioten kolikoak izanzen zirela. Mina baretzen ez zenez, berriz joan zen larrialdietara: “Ni oso indartsua naiz, baina malkoak erotzen zitzaizkidan ezin nuelako gehiago. Medikuek oso ongi artatu ninduen eta analitika bat eskatu zuen”. Hitzordurik gabe hematologoarenera joan zen emaitzekin: “Eskuak burura bota zituen: ‘Ezinezkoa da, ezinezkoa da, emaitza hauekin berandu goaz!’”.

Oro har hematologian “oso ongi” artatu dutela sentitzen du, baina Bideko Ama Birjinaren Ospitalera eraman zutenean mediku batek izan zuen jarrera ere oso presente dauka. Ospitalera iritsi zen larrialdizko proba batzuk egitera, baina medikuak Garateren sintomak gutxietsi eta proben larritasuna zalantzan jarri zuen: “Ikaragarritzko mina neukan eta sabela ukitzen zidaten kexatu arren, esan zuen miaketa guttiz normala zela.



Negarrez nengoen ezin nuelako mina gehiago jasan, lasaigarri gehiago emateko eskatu nien, baina medikuak agindu zuen botika guztiak kentzeko". Emaitzak jaso zituenean medikua larriturik agertu zen eta ez zuen izandako jarraz ardurarik hartu: "Eskuak astinduz esan zidan: 'Arrazoia zenuen, arrazoia zenuen. Kontatuko dizute'".

Horren ostean, biopsia bat egin eta linfoma folikular bat zuela esan zioten. Poliki-poliki hazten den linfoma bat da, osabiderik ez duena: "Duela zortzi urtetik dagoela uste dute, baina oso azkar hedatzen ari zen linfoman zentratu zirenez, ez zuten ikusi". Proba ugari egin, eta kimio saioekin hasi ziren: "Oso gogorra izan zen. Zazpi eguneko kimio saioak egiten nituen eta etengabe egiten nuen goitika".

AUTOTRANSPLANTEA

Mila proba egin ostean, muina kalte- turik zuenez autotransplante bat egin zioten. "Medikuek esan zidaten ospatzeko berriz jaio nintzela", dio hunkiturik. Medikuek kontent dira emaitzekin. Aldi berean, argi azaldu zioten Garateri min- bizia kronikoa dela. Egun, immunoterapia jasotzen ari da: "Bi urteko tratamendu da. Ez dakit zer etorriko den gero,

baina momentuz bizitza lasaia daukat. Ez daukat lanik eta nire lehenasuna ama eta semea dira. Batzuetan beldurra ematen du zer datorren galdetzeak".

Hori dela eta, behin betiko lanerako ezintasuna eman diote. Gaixo baimena eskatu zuenetik ez du inongo arazorik izan; halere, agirian jartzen dute epai- mahaiko kideek berraztertu dezaketela eta espero dutela ezintasuna eman eta bi urtera lanean egotea: "Nahiko nuke ongi egon eta lan egin, baina gaueko be- deratzietarako ohean nago".

Prozesuan oso informazio gutxi jaso zuela eta bere kabuz bilatu behar izan duela azaldu du Garatek: "Adibidez, ez zidaten deus esan elikaduraren inguru- an, zer egin edo zer ez. Bizikletan arit- zea izugarri gustuko dut eta ez nuen kentzea nahi". Zorionez, ahal zuen neurri- an egiten jarraitzeko esan zioten. Hiri- ritik ohiko bizikletarekin ibiltzen da eta distantzia luzeetarako, 40 edo 60 km inguru egiteko, elektrikoa.

Lehenengo kimioarekin hasi zenean bizikleta bat jartzeko eskatu zien: "Egu- nean hirutan aritzen nintzen bizikletan, baina lehenengo hiru kimio saioak pasa zirenean ezin nuen gehiago. Txiki-txiki egiten ninduen". Horrez gain, yoga on- kologikoa egiten du astero. Norberaren

beharretara egokitutako yoga izateaz aparte, elkarrekin mintzatzeko eta kez- kak partekatze espazioa ere bada. "Kirola egitea beharrezkoa da niretzat", nabarmendu du. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Zangoak. Oinez edo bizikletan noanean bizia ematen didate".



“ ”

Gazteek nahi dute euskarari buruz hitz egin

Ainhoa Lasa Agirre
Aholkularia

Ainhoa Lasa Agirre (Lovaina, Flandria, 1976) Emun kooperatibako kidea da. UEUko udako ikastaroetan, hezkuntza soziolinguistikoaz hizketan ezagutu genuen uztailean. Dozena bat urte daramatza DBH4ko gazteen ikasgeletan esku-hartzeak egiten. Egitasmo osoak dira, herriko ikastetxe guztietan batera egiten dute lan. Gaur egun Zarautz, Zumaia, Beasain, Hondarribia, Eibar eta Pasaian ari dira. Proiektuotako aholkulari ere bada.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Zer esan nahi duzue ikasgeletan soziolinguistika eman behar dela diozuenean?

Guk ez dugu "eman" hitza erabiltzen, eta soziolinguistika bakarrik ere ez da; uste dugu soziolinguistika eta psikolinguistika landu behar direla. Gaia ikasgelara eramaten dugu eta hitz egiten laguntzen diegu ikasleei. Ezagutza falta dute, eta informazioa ematen diegu, hiztunoi eta hizkuntza komunitateei buruz hitz egitean, elkarrizketarako helduleku sendoak izan ditzaten.

Lanean ari zaren dozena bat urte hauetan zenbat aurreiritzi puskatu zaizkizu?

Pila bat. Puskatu zaidan bat: utzikeriagatik ez dute euskaraz egiten. Esango nuke askoren buruan dagoela. Ez da horrela. Beraiek, adibidez, euskaldun berriaren definizioa beste leku batetik egiten dute, haien lotsak eta zauriak dituzte, eta ez dute hain modu kontzientean egiten erdaraz. Helduok dauzkagun zauriak, eta

beste batzuk dituzte. Motxila handi bat dute. Baina gaztea eta euskalduna izatea beraientzako zer den ulertzen lagundu didate. Ikuskera eta definizioetan aniztasun handia dute. Ez dakit nola esan. Jartzten naiz beren lekuan, eta ostras!. Nik zer egingo nuke? Zer da euskaldun iritsi berria izatea? Zer da iritsi berri pila bat izatea ikasgelan? Zer da euskara egitea lotsa ematen dion kide bat edukitzea klasean? Zer da inguruneak eta ikastetxeak bat ez egitea? Alegia, eskolan denak dira euskaldunak, eta agian, kalean ez. Ni ere horrela joan nintzen: Denak euskaldunak baldin badira, zergatik ez dute, bada, euskaraz egingo? Ezintasun errealak ez daude, ulermen mailakoak, baina beste-lakoak bai, eta uste dut batzuetan heroismoak ere eskatzen dizkiegula.

Zer esan nahi duzu?

Ez da gauza bera Zarautzi buruz hitz egitea edo Eibarri buruz. Begira, puskatu zaidan aurreiritzi bat: zenbat eta gehiago kontaktu soziolinguistikaz, orduan eta

gehiago jakingo dute, eta hala euskaraz egingo dute. Denborarekin konturatu gara eduki gutxiago emanda, hainbat eta gehiago hitz egiten dugula pertsonaz. Galdera hauek egitea da: Zer gertatzen zaizu? Non zaude? Zer nahi duzu? Zer behar duzu? Utzikeria baino gehiago, batzuek esaten dizute: "Ni zure egoeran banengo egingo nuke". Gizarteko "euskaraz gehiago egin behar dugu" diskurtsoarekin bat egiten dute, erantzukizunaren sentsazioa badute, baina ez daukate erremintarik, indarrik, edo pisurik horri beste buelta bat emateko. Egoera ez da helduenetik oso diferentea.

Gazteak gehiago estigmatizatu dira, akaso.

Irakasle batzuei kosta egiten zaie ikus-tea, nahiz eta ni saiatzen naizen zirikatzen, eta diote: "Denak euskaldunak dira eta zergatik ez dute egiten? Guk esaten diegu egiteko". Irakasleen artean dene-tarik dago, euskaraz egiteko eskatzen dutenak, euskaraz egitearen garrantzia



azaltzen dutenak, euskaraz egiteko neurrian esaten dietenak... Azken multzokoek pasilloan erdaraz entzuten dituzte eta ondoan pasatzen dira, edo ikasleak irakasleari erdaraz erantzuten dio eta irakasleak normalizat hartzen du. Etsipenetik izan daiteke, nahi duzuna...

Euskaraz egiteko esaten dionean, berriaz, irakasleak indartsu ikusten du bere burua eta ahaztu egiten zaio zein indar daukan lagunartean.

Irakaslearen lagunartean ari zara?

Ikasleek erdaraz egin arren, irakaslea gai da euskaraz segitzeko, baina horixe bera plazan, bere kuadrillan, behar bada, ez luke egingo. Ikasleak dauzkanean buruan, ez du ikusten bera zein den giro

“ ”
***Helduoi gure buruari
 galderak egitea
 dagokigu, gazteekin
 kalitatezko elkarrizketa
 bat eduki ahal izateko***

horretatik kanpo. Exijentzia handia dago. Zu kalean zaren hori da ikaslea klasean. Ikaslea ez dago lantokian, bere lagunekin dago, beste behar batzuk dauzka, ondo gelditzeko behar bat dauka, besteekin bat etorri nahi du...

Beste aurreiritziren bat?

"Astuna egiten zaie euskarari buruz hitz egitea", eta nik klasean ikusi dut ez dela horrela.

"Hemen dator hau euskara gehiago egin behar dugula esatera", pentsatzen dute zu zoazenean?

Horrelaxe da. Baina, batetik, guai zaie kanpoko pertsona bat datorrelako eta ez dutelako Historia edo Fisika ikasgaia eman behar. Bestetik, buruan daukate: "Heldua da. Esango digu euskaraz egiteko!". Baina hizketaldietan ez dago epairik, "gu galdetzeraz geroz zer egiten duzuen, zergatik egiten duzuen", horrelaxe esaten diegu, "gu ez geroz inori esatera euskaraz egin behar duen ala ez", erdaraz egiten duzula, guai, euskaraz egiten duzula, guai, ingelesez... Baina nahi dugu egiten duzuna kontzienteki egitea.

Kontua da beren bizipenez hitz egiten dutenean piztu egiten direla. Nahi dute gaiari buruz hitz egin. Nahi dute entzunak izan. Nahi dute, "ostras, hau ez da hain erraza!" esan eta norbaitek ulertzea. Hasieran gure buruari jartzen genion helburua zen -eta oraindik ere bai-, ea nola lortzen dugun ordubetez gaiari buruzko elkarrizketari eustea. Aitzur lana da, galderak egiten dizkiegu, are eta barrurago sartzen gara. Denek hartu nahi dute parte eta denek hartzen dute parte. Erantzunak interesgarriak dira, nahiz eta ez izan oso berritzaileak. Urtero dauzkagu opariak. Bateren batek klak egiten du eta klak horrek eragina dauka ikasgela osoan.

Gogoratzen ari naiz zuk esandakoa Eibarko ikastaroan: haiei entzun, ulertu...

Ez epaitu...

Eta diren bezala onartu.

Hori baino, saiatu ulertzen zer den 16 urte edukitzea testuinguru bakoitzean. Ez dira berdinak. Ingurune hurbilak ere pisu handia du. Batzuek leialtasun kontu bat dute. Zeri izan behar naiz leiala? Familiatik jasotzen dudana mezuari, klasean egokitze baliu didanari... Ez da ez epaitzea bakarrik, enpatiko izateko ahalegina egin behar dugu. Ez da ikaslea onartzea eta kito, da galdetzea nor den, zer ari zaion gertatzen...

Eremu erdaldunetan euskaraz ondoen aritzen direnei edo euskaltzaleei ez ote zaien heroi izatea eskatzen.

Gehiengo dagoen lekuan ez dagoena

markatua da. Gauza bat esango dizut, oro har, klasean dagoen diskurtsoa baino positiboagoa da balorazioetan jasotzen duguna. Ez dute euskararen alardea egingo irakaslearen aurrean! Baina erantzukizunaren pisua badaukate, nahia edo gogoia, ez dakit zer den, baina "besteek egingo balute guk ere bai" moduko bat. Gas-teizkoei edo Zarauzkoei galdetzen diezu Oñatira joango balira nola egingo luketen eta esaten dizute, "euskaraz". Euskaraz zailtasun handia duenak eta erraztasun handia duenak esaten dizu. Euskaraldiak erakutsi digun gauza bera: bai, nahi dugu, baina nahi dugu plaza euskaraz egotea guk ere euskaraz egiteko. Besteek egiten duten bezala egin nahi dut, eta euskaraz bada, badakit betetzen dudala diskurtso hori. Euskaldun gehienok hori nahi dugu, aparteko ahaleginik gabe aritu.

Lehen esan duzu opariak edukitzen dituzuela, alegia, tarteka gazteek klak egiten dutela. Adibiderik?

Gozokiak eta hizkuntzak parekatzen ari ginen, jolasean. Mutil batek, euskaraz tuktik egiten ez zuenak, zera bota zuen: gozokia hizkuntzak bezala da, agian ez dugu zapora bat probatu edo hizkuntza batean hitz egiten ez dugu probatu, eta ez dakigu gustatzen zaigun ala ez, eta zuek uste duzue niri ez zaidala gustatzen euskaraz hitz egitea. Klaseko liderra zen, eta denak harrিতuta gelditu ziren. Gero hizkuntza ohiturak aldatuko dituen ala ez? Ez dakit, 15 urte ez da besteen aurrean agerian gelditzeko garaia.

Neska batek, Murtziatik [Espainia] iritsi berriak, nonbait, gure saio guztiak bukatu eta gero klasekoekin hitz egin zuen: "Hau daukazue eta ez duzue hitz egiten euskaraz? Nik ikasi nahi dut. Niri egidazue euskaraz". Neska horri, harrezkero, euskaraz egiten diote. Horretarako ausardia eta argitasun handia behar da. Opari horiek eragina badute. Zeren gure helburua ez da 16 urterekin hizkuntza aldatzea, guk pentsatzen dugu ereiten ari garela, baizik eta erabakitze ahalmena eta indarra daukatenean erabakia errazago hartzea.



“ ”

Gure helburua ez da 16 urterekin hizkuntza aldatzea, baizik eta erabakitze ahalmena eta indarra daukatenean erabakia errazago hartzea

Horixe galdetu behar nizun, ea zuen helburua zein den.

Guk horrelaxe esaten dugu: Ez pentsa euskaraz hitz egiten hasiko direnik! Gure helburua da hizkuntza identitatearen parte dela ulertzea, eta ez bete beharreko arau bat. Gazteei esaten diegu beraien parte direla euskara eta gaztelania, eta galdetzen diegu ea zergatik ematen dieten batek lotsa eta besteak ez. Ez da justua beraiantzat.

Irakasleek barneratu dute ezagutza/kontzientzia/erabilera katea ez dela derrigor beteko?

Ea, nire betaurrekoak dira hauek. Irakasle batzuk etsita daudela sentitzen dut, eta uste dute zenbat eta gehiago estutu, are eta gehiago lortuko dugula. Beste aldea ere badago, "alferrrik da zer egiten dugun, ze ez dute egingo". Borroka horretan ikusten ditut, eta zain ere bai: "Esaidazu zer esan behar diegan ikasleei euskaraz egiteko". Hau da, esaidazu zer egin behar duan nik beste batek egin dezan. Gu gauden herri batzuetan ez dago alde handirik gazte eta helduen erabileraren artean; batzuetan gazteek egiten dute gehiago, besteetan gutxiago, eta horrek helduon hizkuntza portaerez ere hitz egiten du. Herriko paisaia eta balio linguistikoen eraikitzaileak ere bagara. Helduei horixe galdetuko nieke, eta zuk zer egiten duzu hizkuntzekin beste era batera harreman-tzeko? Badaukazu indarra zure lagunek erdaraz egiten dutenean zuk euskaraz segitzeko? Agian ez, eta beste adin bat daukazu. Helduoi, gure buruari galderak egitea dagokigu, gazteekin kalitatezko elkarrizketa bat eduki ahal izateko. ●


BABESLEA:

**LEZO
EUSKARAGARRI**



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Tlatelolcoko sarraskiaren aitortza



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mexiko Hiria, 1968ko urriaren 2a. Hilabete batzuk lehenago, ekainaren 22an abiatutako ikasle mugimenduak mitin bat antolatu zuen Hiru Kulturen Plazan, hiriko Nonoalco-Tlatelolco unitatean. Mexikoko ejertzitoak eta Batallón Olimpia talde paramilitarrak bildutako ikasleei eraso egin zieten.

Mexikoko Gobernuak esan zuen eraso justifikatuta zegoela, manifestariak izan zirelako tiroka hasi zirenak; 2000. urtean desklasifikatutako dokumentu batzuek agerian utzi zuten tiratzaile haiek gobernuak berak kontratatu zituela. Bestalde, agintariak zenbaki bakarra eman zuten gertatutakoaren balantzea egiterakoan: 1.345 manifestari atxilotu zituzten. Hildakoei eta zaurituei buruzko datu ofizialik ez zuten eman. Duela urte batzuk, Kate Doyle analista politiko estatubatuarrek Mexikoko Segurtasun Artxibo Nazionala arakatu zuen eta 44 hildako dokumentatzea lortu zuen. Testigantzen arabera, ordea, hildakoak 300dik gora izan ziren, eta zaurituak 1.000tik gora.

Duela bizpahiru aste, Tlatelolcoko sarraskiaren 56. urteurrenean, Claudia Sheinbaum presidente berriak, dekretua sinatu zuen Estatuaren izenean biktimei barkamena eskatzeko. Sheinbaumek inbestiduraren ondoren hartutako lehen erabakia izan da, eta lehen aldia da, gainera, Mexikoko Gobernuak sarraskiari buruzko



Ikasleak Mexikoko Hiru Kulturen Plazan bilduta, 1968ko urriaren 2an.

dekretu bat argitaratzen duela: "Mexikoko Estatuaren izenean eta berau ordezkatzeko, politikoki aitortzen dugu 1968ko urriaren 2an ikasle mugimendu heroikoaren aurka gobernuak egindako indarkeriazko ekintzak gizateriaren aurkako krimenak izan zirela", dio testuak.

Sheinbaumek esan zuen bera ere "68ko alaba" dela, amak urte hartako protestaldietan parte hartu omen zuela-

ko, eta sarraskiaren ondorioz sortu zen gizarte mugimenduak eragin handia izan omen duelako bere karrera politikoan.

Urriaren 2an nahiz hurrengo egunetan milaka atxiloteta egin zituztela esan du, eta horietako asko torturatu edota desgerrarazi zituztela. Eta, azkenean, testigantzek esandakora hurbiltzen den hildako kopuru ofizial bat ere eman du: 325, gutxienez. ●

Beste hainbeste geoglifo Nazcan

Yamagata unibertsitateko Masato Sakai arkeologo japoniarra buru duen ikerlari talde batek geoglifo ugari aurkitu berri ditu Nazcako basamortuan (Peru). Guztira 303 geoglifo topatu dituzte, orain arte ezagutzen zen geoglifo kopurua ia bikoiztuta. Horretarako adimen artifiziala erabili dute ikerlariak.

Orain arte ezagutzen ziren irudiak aurkitzeko hainbat hamarkada behar izan dituzte; aldis, teknologia berriei es-

ker, ia beste hainbeste aurkitu dituzte sei hilabetean.

Gainera, sorta berri honi esker 2.000 urte inguru dituzten irudi hauetan bi tipologia bereizi ahal izan dituzte: orain arte ezagutzen zirenak geoglifo erraldoi linealak ziren; orain aurkitutako gehienak txikiagoak dira eta erliebean eginak daude.

Orain, irudien esanahiari eta helburuari buruzko hipotesi berrien txanda da. ●



LARRUN-EK 300 ZENBAKI



“Gure alea(k) askatasunari buruz”

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Lehenengo *Larrun* aldizkaria eskuetan dudala harrapatu nauzu, irakurle. Eta titulura ekarri nahi izan dut hasiera hartan kanpaina egiteko erabili zuten esaldia, kazetaritza independentea egiten jarraitzen duen ARGIArentzat laurogeiko hamarkada hartan bezain aktuala dena. 1985eko ekain urrun hartan Eustakio Mendizabal *Txikia* zenaren argazki mitiko bati azala eman zioten aldizkari historiko hura irakurri berri dut eta pribilegiatu bat naiz horrelako dokumentu bat eskuetan eduki ahal izateagatik. Zein arrazoiengatik, baina, iritsi diren denborak horitutako orriok nireganaino? Ospakizunetan delako ARGIA, *Larrun* gehigarriaren 300. zenbakia argitaratzera ailegatu baikara eta aitzakia aprobetxatu nahi izan dugulako memoria pixka bat egiteko.

Sei hilabetekari bezala sortutako pentsamendu aldizkaria izan zen lehen *Larrun* hura. Honela azaldu zuten egileek aurreneko zenbaki hartan: “(...)Euskal

Herrian bada mugimendu sozial, politiko eta kultural bat bere hirugarren hamarkada osatzera doana, gorabehera eta matiz askorekin baina hari nahiko garbi bati jarraikiz Euskadi berri bati buruz doana (...). Mugimendu horrek langile eta lan guztiak gutxiegi izango ditu beti, eta egin beharrekoen artean armamentu ideologikoaren produzitzea azkartu beharra zegoela iruditu zaigu. Azterketa eta dossierrek ez dute konponduko Euskal Herria, egia da, baina etorkizunari bideak ireki nahian ari gareni balioko digu, agian. (...) Landu beharrezko alor bat ikusi dugu, beraz, eta lantzeko gai diren gizon eta emakumeak ere badirela, behar bada beren burutazio eta ikerketen emaitzak non argitaratu faltaz alferrik galtzen zituztenak. Produzitzeko arrazoien gehiago badute bada gure intelektualek, plaza berri honekin. Hola *Larrun* kezka eta zalantza guztien artean sorturik (...). Historia, ekologia, gizarteak hainbat puntutatik iker dezaten saiake-

rak, euskal kulturaren mundua, politika, munduan zehar argitaratzen diren liburuen berri... Zapaltzaileek ezartzen dizkiguten morrointza ugarien artean ideologikoa ezin dugu ahantzi, eta hainbeste medioz hedatzen dituzten beren mito eta interpretazioei guk geure ikuspuntuak, geure azterketak, kontrajarri nahi dizkiegu. (...). Hemen da tresna bat eta lanik berriz ez da falta”.

Ordurako ARGIA batzuk ari ziren adar kulturalari tiraka Susarekin, baina bazegoen nahi bat gai batzuk lantzeko astekariak ematen zuena baino sakontasun gehiagorekin. Egiten ziren elkarrikeria batzuei leku gehiago eskaintzeko. Aldizkari independente bezala sortu zuten *Larrun* eta bazituen bere harpidedunak, ARGIAtik aparteak. Sinatzaileen artean irakur ditzakegu Gatzaga Taldea, Iñaki Uria, Pablo Sastre, Pello Zubiria, Emilio Lopez Adan *Beltza*, Jokin Apalategi edo Jean Louis Davant, eta gehiago ere baziren.



1994ra arte iraun zuen sei hilabete-kariak eta, hiru urteko geldialdiaren ondoren jarri zuten martxan berriz ere, gaur ezagutzen dugun gehigarria, hilabetekari bezala. Bigarren hau da 300eko zifra ospatzekotan dena. Mahai-inguruen formula erabiltzen hasi ziren 1997an eta urte luzez iraun zuen, gai batean sakontzeko iritzi ezberdinei lekua emateko erabilitako formatuak. Tartekatzen ziren elkarrizketa batzuk, horien artean Xabier Arzalluz, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Kristiane Etxaluz edo Miguel Castells.

LARRUN-EN ESPIRITUA

Beti izan da ARGIAren helburua arnas luzeko kazetaritza egitea eta horretarako erreminten artean bat bada *Larrun*. Gaur egun hilabetekariak erabiltzen dituen estiloak askotarikoak dira: elkarriketak, erreportajeak, nazioarteko hedabideetatik arrantzatu eta itzulitako artikuluak, liburuen laburpenak...

Erredakzioko kideak dira, normalean, *Larrun*-en egileak, txandan-txandan;

nahiz eta kolaboratzaileek ere egiten duten tarteka. Iñaki Landa ilustratzailea da gaur egun aldizkaria azaleko irudiarekin osatzen duena –Joseba Larratxe ‘Josevisky’ marrazkilariarekin eman zen argazkitik ilustraziorako saltoa portadan–.

IZENA ETA IZANA

Modu naturalean mantendu zuten *Larrun* izena hiru urteko etenaldiaren osteko birplanteamenduan. Marka sortua zegoen, jada ezaguna zen irakurleen artean eta mantentzen zuen hasierako esentzia, gaur egunean ere balio duena. *Larrun* bada, zazpiak hirutan banatuta jarraitzen dutenean, lotura puntu; Ipar zein Hego, mendi erreferentea; mendiak berak Euskal Herriaren historian esan nahi duen guztia.

Quinta eta *sexta* esan eta lehen kolpean autoko martxak burura datozkigun belaualdikoontzat irakurketa politikak, lehen *Larrun* haiek, nondik gatozen ez ahazteko eta 300etik gorakoak ere bai, non gauden eta nora goazen gako batzuk ulertzeko. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri deni, komunitatera!

“ ”

“Desinformazioaren aurrean txikitik eragiten duten komunikabide euskaldun eta ezkertiarrek egotea ezinbestekoa delako”.

Tolosalatik Uxuek

“Ezkerreko euskal kazetaritza bultzatzeko”.

Donostiatik Candelak

“Zuen astekaria irakurtzea plazera da niretzat. Hori dela eta, zuek bizirik jarraitzea nahi dudalako, nire aletxoak eskaintzea erabaki dut”.

Astigarratik Aloñak

“Kalitatezko gertuko kazetaritza egiten duelako eta euskal komunitatea trinkotzeko tresna egokia iruditzen zaidalako”

Azpeititik Amaiak

“Askotan irakurtzen ditut interneten Argiak argitaratzen dituen artikulu eta podcast-ak. Oso interesgarriak iruditzen zaizkit”.

Arrasatetik Aitorrek



SASOITU

LANTOKIETAKO ISILPEKO DOLUAZ



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Hau irakurtzen duzunerako, ez dakit zenbat herri izango ditudan bihotzean eta zenbat gogeta buruan. Idatzi hau bidali baino lehen, izan naiz Arantzan, Tolosan, Elgoibarren eta Ondarroan, *Hausnarrean* liburua aurkezten.

Leku bakoitzetik zer edo zer dakart etxera. Hartu nauen taldearekin batera itzultzen naiz etxera, gutxienez. Gerora, batzuetan, ekarritakoak luze irauten du, are gehiago hurrengo egunetan horri bestelakoak kateatzen bazaizkio. Tolosan izandako elkarrizketa bat kulunkan daukat, eta dilin-dalan horretan haria luzatzen da, amarauna osatu arte.

Animalien heriotza abiapuntu duen doluaz aritu ginen. Abereen heriotzak gugan sortzen duen minaz edo ezinaz ez da, orokorrean, hitz egiten. Gaixo zegoen, eta hil behar izan dugu. Eta gero, zer?

Zer datorkigu gero? Zer diote gure tripek heriotzaz? Beherakoak al darama, bere erauntsian, nahasian dugun tristura? Idorrieriak xurgatu al ditu gure malkoak? Edo hor barruan gertatzen denaz hobe ez jakitea?

Adineko pertsonak zaintzen dituen emakumeak hori dena lotu zuen bere lanarekin. Eredu horretan ere heriotzak sortutakoa isilarazi egiten omen

da. Dolu itoari ez omen zaio haizerik ematen. Ez da existitzen. Lan-harremana eten egin da. Fini. Pasa beste batera.

Baina ez da egia, edo ez behintzat kasu askotan. Maiz zaintzaile eta zainduaren arteko harremana lan-kontratutik askoz urrutiago joan da, eta konpartitutako orduetan bizitza bera partekatuta dute, elkarrekin brodatu eder bat osatu arte.

N1 errepidean kakorraz-lanetan hasi nintzen ni. Gogora etorri zait isiltasunera kondenatutako kazetariez aritu zen EHUKo irakasle bati egindako elkarrizketa. Gisèle Pericot, senarrak drogatu ondoren, bortxatua izan zen emaztearen kasuaren harira irakasle horrek luzatutako galdera: epaiketa horren jarraipena egin behar duten kazetariak hartzeaz nor arduratzen da? Nork itzuliko ditu tripa horiek bere onera, eguna bortizkeriatan pasa ondoren? Nola eman leku Gisèle Pericoten kontakizunean beren burua irudikatu duten emakumezko kazetari –edo bestelako langile– horien izuari?

Ehoziriak eskutan banitu bezala, gehitu zaizkit Palestinan –edo beste edozein tokitan– dauden langileen –medikuak, kazetariak, GKEetakoak...– tripak. Nork hartzen ditu horiek? Nork zaintzen ditu lan-harreman horietan

sortzen diren zauri ikusezinak? Pentsa dezagun begi bistakoak artatuak direla...

Badakit heriotzak, orokorrean, ez duela prentsa onik; bizitzaren ezinbesteko osagaia izan arren, ez dugula parea ikusi nahi, ezta onartu nahi ere. Halere, zalantzan nago, ez dakit hona ekarritako heriotzak –edo bortizkeriak– ez diren ikusten ala, ikusi badira ere, langile horiek bizi dituzten ezinei ez ote zaien atentziorik jarri nahi.

Abeltzainon kasuan, ziur aski, nahikoa litzateke norberak arnasa ematea gertatutako heriotzari eta dolua konpartitzeko aukera izatea. Bestelakoetan, korapiloa handiagoa da, akaso, aiseago askatuko da heriotza naturala izan den kasuetan; baina hor ere arnasa behar. Bortizkeria tartean dagoenetan, baliabideek bestelakoak izan beharko luketela esango nuke.

Halere, susmoa dut estandarrak agintzen duen lan-harreman serio eta profesional horretan, lan-hitzarmenetan ez direla erreskaterako estrategiak jasoko. Norberak bilatu beharko dituela arnasak, barruko korapilo horiek askatzeko.

Zer egin gure doluen digestioekin? Usteltzen utzi? Komunikatu behera bota? Ala arnasak eta denborak eskaintzen diguten patxadaz tripak askatu? ●

A ZE FAUNA!

LAU HANKA TXIKI GORPUTZ BAT AZKARRA EGITEKO



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Bi argazki aterako dizkiogu gure memoriari: batak Nafarroako Bardeetara eramango gaitu. Bertan, hautsez beteriko pista baten aldamenean, belar luzez osaturiko zelaitxo bat aurkituko dugu. Argazkiak erakutsiko du herpetologo gazte bat bertan barneratzen: begiak erne, zer ikusiko. Baina ikusi baino, mugimenduak sumatzen ditu batean eta bestean. Mugimendu azkarrak; zein animaliaarenak diren ikusten uzten ez dutenak.

Bigarren argazkiak Bizkaiko kostan kokatuko du herpetologoa. Getxoko itsaslabarren goialdeko txilardietan. Itsasoko usaina eta olatuen soina. Txilarrei so doa batera eta bestera, narrastiren bat ikusteko peskizan. Begien aurrean, ordea, mugimendu azkarreko itzalak baino ez ditu ikusten. Txilar adarren artean ezkututzen dira.

Bardeetako desertuko belardian, zein itsasoari begira dagoen txilardian, itzal eta mugimendu azkarrek jabe bera dute: eskinko hiruhatza. Hiru hatz baino ez dituen hanka txikien jabeak suge itxurako bere gorputza erabiltzen du isiltasunean, sigisagan, landaretzan barrena mugitzeko. Mugimendu azkarrak eta arinak dira.

Eskinko hiruhatza narrasti deigarria da. Eta deigarria da ere, horrelako forma berezia duen animalia batek horren atentzio gutxi jaso izana giza-



IÑAKI SANZ-AZKUE

kiaren aldetik. Suge forma du, baina ez da sugea. Muskerra da, baina hankak txiki-txikiak ditu; eta hori gutxi ez eta, hiru hatz baino ez ditu hanka bakoitzean. Bizkarraldea arrea du, horizta edo zilar ukitu batekin, eta beti bederatzi-hamaika marra paralelo ilun ditu aurretik atzera jarriak. Eskinko hiruhatza berezia denik ezin ukatuko dugu.

Berezia da bere banaketa ere. Jatotri mediterraneoko espeziea izanik, Euskal Herri hegoaldean ikus daiteke

batez ere, eremu lehorretako belardietan, ezpondetan, sastrakadietan, esaterako; baina ikus daiteke baita ere, Bizkaiko kostaldean, bai duntako landaretza eta harrien artean, bai itsaslabarren gainaldeko belardi hezeetan. Euskal Herrian, Bizkaiko itsas mailatik hasi eta Nafarroan 900 metroraiko ikusi izan da.

Espezie honen behaketak egiteko garairik onenak martxo eta urria arteko egun eguzkitsuak dira Nafarroan. Aktibitate handiena eguerdi aldera izaten duten arren, garairik beroenetan, goizeko lehenbiziko izpietara eta ilundu aurreko orduetara mugatzen du bere aktibitatea, berorik handienak saihesteko. Ornogabe bila ibiliko da orduan landaretzaren artean. Besteak beste armiarmak, koleopteroak eta hemipteroak jango ditu, baina erne ibili beharko du. Izan ere, predatzaile asko ditu kontrario: eskinkoa moka du ona izan daiteke, besteak beste, Montpellierko sugearentzat, suge leuentzat, gardatxoarentzat eta hainbat ugaztun eta hegazti espezierentzat.

Horrek erakusten du, zergatik eskinkoak ez zion herpetologo gazteari bere gorputz eder eta berezia erakutsi nahi izan Bardeetako belardian eta Getxoko txilardian. Isilean eta landaretza artean ezkutatuta ibiltzea baino estrategia hoberik ez baitu izango harapatua izan nahi ez badu. ●

ESKINKO HIRUHATZA *Chalcides striatus*

TALDEA: Ornoduna/Narrastia.

NEURRIA: 43,5 cm (isatsa barne).

NON BIZI DA? Sastrakadi mediterranean, belardian, txilardian....

ZER JATEN DU? Ornodun txikiak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

ZAINZURIEN SKOTOMORFOGENESIA ETA FOTOMORFOGENESIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Datorren negua gozatuko digute zainzuri kimuek (*Asparagus officinalis*). Baratzeke nire kuttuna da, baita nire baratzeke ere. Bat-batean urteak bizitzen den landare batek lurpetik luzatzen du kimua. Urterro landarea desegin egiten da, udazkena etorri ahala urte horretan hazi den landarea horitu, ihartu eta deuseztatu egin da. Neguan lurpean soilik bizi da. Sasoiak bildu eta sustraietan jaso ditu erreserba gordekinak; loditu eta sasoi berria ekarriko duten eta luzatu eta epelduko diren egunen zain jarriko dira. Orduan erresalbuak piztu, dantzatu eta bizia eman eta erreserba berriak ekoitziko dituen landarea sortu nahi du. Landare horren lehen pujak edo muskilak dira kimuak. Kimuak barruan dakartza aurreko sasoi osoan sustrai lodikoteetan pilatu eta pilatu jasotako erresalbuak. Gordekin horiek ahalik eta ondoena antolatzeke biltegitratze teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte landareek: azukre konplexuak. Azukre horien korapiloak eta begiztak askatu eta sasoi berria osatuko duen landarea erakitzeke zelulek beharko dituzten azukre sinple jangarri bihurtuta daude kimuan. Sustraietan ahalik eta gehien jasotzeko erreserbak konplexuak dira, trinkotuak, bere baitan areago bilduak, gainkontzentratuak. Kimuan, aldiz, arinduta daude, askatuta, urtuta, di-da erabiltzeko moduko jakiak dira. Azukreen joko horrek aparteko gozotasuna eransten dio kimu berriari; sasoi lehen zainzuri naturala lehen aldiz ahoratutakoan aho sabaiari galdetu... Ahobeltzenak ere igartzen dio.

Kimu berria sustraietatik abiatu eta luza eta luza landare berria altxatu arte ez da geratuko. Hasieran lurpean zu-

ri-beluri antza luzatuko da, skotomorfogenesi aldia da; gero, behin argitara aterata, argi horrekin bere funtzio fotosintetikoa eginez, jeneralean berdea den berezko kolorea hartuz luzatuko da, fotomorfogenesi aldia da. Zuria den artean sustraietako jakiak beste ez du izango; fotosintesiarekin berriak, berak sortutakoak izango ditu. Horra dastaren aldaketa nabarmena. Lurpean zuria denean zapore, ehundura eta azalmintz leunagoak, finagoak ditu.

Zainzuridietan ildo-bizkar handien azpian luzatzen dira kimu preziatuak.



BJÖRN S. / CC A-S-A-2.0

HITZALDIAK

ATAUN: Urriak 23, 18:30ean
Udaletxean, *Hausnarrean* liburuaren aurkezpena Josebe Blancoren eskutik.

AMOROTO: Urriak 26, 10:30ean
Kultur Etxean, *Izei ukendu baltsamikoa tailerra*, Garbiñe Larreak emanik. Izena emateko: kultura.amoroto@gmail.com.

ETXALAR: Azaroak 9, 11:00etan Kultur Etxean, *Ilargia eta Landareak 2025 agendaren aurkezpena eta zuzeneko kontsultategia* Jakoba Errekondoren eskutik.

ARETXABALETA: Azaroak 14, 18:30ean Arkupe Kultur Etxean, *Haziak* liburuaren aurkezpena egingo du Miguel Arribas Kelo-k.

HITZALDI GUZTIAK:

argia.eus/solasaldia

ANTOLATU ZURE HERRIAN: idatzi solasaldia@argia.eus helbidera.

Beste barazki batzuei inguruan eraikitzen zaie lurrestaliko dituen muntoa. Badira lurrik gabe, beste materialen batekin estaltzen direnak ere: paper, kartoi, ohol, loreontzi, teila... Baita hosto motza lotzea nahikoa dutenak ere. Hona batzuk: behartsuen zainzuria (*Chenopodium bonus-henricus*), apioa (*Apium graveolens*), endibia (*Cichorium endivia*), eskarola (*Cichorium endivia* var. *crispum* eta var. *latifolium*), uraza (*Lactuca sativa*), txikoria (*Chicorium intybus*), porrua (*Allium porrum*), kardua (*Cynara cardunculus*), patata (*Solanum tuberosum*) eta arabarba (*Rheum rhabarbarum*). Baratzezainak zuritu beharrik gabe ere etortzen dira makina bat landaretan kimu berri jangarri eder askoak: lezka (*Typha* spp.), laharra (*Rubus fruticosus*), anbulua edo zapo-porrua (*Asphodelus albus*), txikori-belarra (*Taraxacum officinale*) eta abar.

Udazkenetik udaberrirako bidea gutiziaz gutizia igaro nahi duzun gupera, melenga edo milixka bazara eta are gehiago milikeriatan eta mizkinkeriatan ibili zalea bazara, ekin mendian bilketari eta barazkiak zuritzeari. Ahozuriak baratzea zuritzera. ●

LARRETIK

PIRINIOETAKO ABELTZAINEK HILTEGI PROIEKTUA JARRI DUTE ABIAN, ZIRKUITUA BERTAN IXTEKO



GARAZI ZABALETA

Lehen sektorea bultzatzeko eta indartzeko lanean dihardute Nafarroako Pirinioetan azken urteotan, eta lanketa horren baitan sortu zuten Pirinioetako Mahaia. Diagnostikoa ondu dute azken urteotan, eskualdean lehen sektoreari lotuta dituzten hutsuneak identifikatzeko, eta ondorio argia atera dute: hiltegi propio baten beharra dutela. “Pirinio inguru honetan lehen sektoreaz ari garenean, abeltzaintzaz ari gara batez ere, eta ohartu gara hemen ez dugula hiltegirik, eta haragitarako ekoizpenek zirkloa bertan ixtea ezinezkoa dutela”, nabarmendu du Iñaki Zoko Larretik proiektuko kideak. Hiltegi proiektua martxan jartzeko asmo nagusiarekin sortu dute aurrean Larretik elkarte, baina baita lehen sektoreari begirako bestelako beharrei erantzuteko ere.

GARRALDAKO HILTEGI ZAHARRA BIZIBERRITZEA

Pirinioetan lehen sektorean diharduten ekoizleekin bilera irekia egin zuten lehenik, eta handik talde motorra sortu zen, hiltegi proiektua martxan jartzeko pausoak emateko. “Orduan konturatu ginen hiltegi gehienak itxita zeudela, eta erai-kuntzak beste zerbaiteko erabili direla, alegia, ez zegoela azpiegiturarik”. Baina



salbuespen bat bazen, Garraldan: “Oraindik azpiegitura osoa mantentzen zuten hango hiltegiak, eta aukera oso ona zen gure proiekturako”.

Garraldako hiltegi zaharra gaur egungo araudira egokitze lanak egitea ezinbestekoa zen, baina hiltegia hutsetik abiatzea baino errazagoa izanen zen. “Gainera, hiltegi proiektuarekin burubelarri jarri ginen urtean, Nafarroako Gobernuak osasun eta higiene araudiak malgutzea erabaki zuen”, dio Zokok. Aldaketa horrek hiltegia berrirekitzeko aukera asko errazten zuen. Momentuz, Garraldako Udalak lizitazioa atera du proiektua idazteko, eta azaro alderako bukatuta izatea espero dute kideek. “Hurrengo urtean proiektua egina egotea espero dugu, eta orduan egokituko zaigu egokitzen lanen lizitazioa egitea, ku-

deaketa modua zehaztea... horretarako sortu genuen talde motorra”.

BERTAN EKOITZITAKO BERTAN KONTSUMITU

Azken urteotan Pirinioetan proiektu berriak eta berritzaileak sortu diren arren, tradizionalki, haragitarako abeltzaintzak izan du indar handiena, Larretikeko kideak azaltzen duenez: “Egia da azken urteotan ekoizpen berriak ere sortu direla, gauzak beste modu batera egiteko gogoz. Esaterako, esne behiekin eta txerriekin lan egiten dutenak, baina eraldaketa ere haien gain hartuz”, dio. Baina eskualdean hiltegirik egon ezean, ekoizpena kanpora bideratzen da batik bat. “Abeltzaintza estentsiboa nagusi den arren, ustiapen handi batzuk ere badaude, hemen animaliak gizendu besterik egiten ez dituztenak. Kanpoko hiltegira bidali eta ez dute haragia berreskuratzen, ez eraldatzen, ez saltzen”, dio Zokok.

Horri buelta eman nahi diote Larretik proiektuarekin, hiltegiak bertan ekoitzitako haragia bertan eraldatzeko eta saltzeko aukera ere emanen dielako. “Proiektu honen asmoa zirkuitua ixtea da, eta horretan ezin gara lehen sektoreko kideak bakarrik inplikatu: garrantzitsua da komertzioak, jatetxeak eta orokorrean herritarrak ere inplikatzeko”, gogorarazi du. ●



Zigilu hauen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.



ReynoGourmet.com

“ ”
*Horrenbeste
erromantizatu
dugunez auzia,
ez gara kontziente
espetxeak sor
ditzakeen ondorioez*

Eztizen Artola Iturrate

Heldu da eguna: espetxetik aterako dute lhintzaren aita. Une horixe du irekiera Eztizen Artolaren (Bilbo, 1999) *Gurpilak* eleberriak (Txalaparta, 2024). Hortik egingo du atzera, aita bisitatzeko kartzelara egiten dituen joan-etorrietan haur motxiladuna hazten, egoeraz jabetzen ikus dezagun. Baita hortik aurrera ere, aita askatu arren, lhintzaren bizkarrak jarraituko baitu zama garraiatzen. Izango du aldean, bestalde, hura arinduko duen bidelagun eta irakaspenik ere.

 LEIRE VARGAS NIETO

 PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC-BY-SA





aske
izan
arte

Irailaren hasieran eman zenuten liburua argitara, eta honezkero egin dizkizute hainbat elkarrizketa, idatzi dira hari lotutako erreportajeak, zutabeak... Hasteko, zorionak! Bestalde, nola ari zara bizitzen lana munduratzea?

Eskerrik asko! Nahiko zoroa izaten ari da. Ez nuen uste halako dimentsioa hartuko zuenik, izugarria izaten ari da. Pozik, uste dut. Urduri ere bai. Baina maitasun mezu pila bat jasotzen ari naiz, motxiladun haur nahikotxok idatzi didate... Orduan, polita izaten ari da.

Sentsazioa dut askok azken urteetan pixka bat ahaztuta genuen gai bat gogorarazi diguzula: presoena eta, zehazki, motxiladun umeena.

Horregatik erabaki nuen hau zela momentua: iruditzen zait, espetxeaz eta motxiladun umez aritzean, iraganean hitz egiten hasi garela bat-batean. Espainiako Estatuako sakabanaketa bukatu eta badirudi honezkero ez dagoela arazorik. Lasaitzen ari gara, zentzu negatiboan. Gaia berriz mahaigainean jarri nahi nuen, eta, horrekin batera, gogorazi oraindik Frantziako Estatuan dauden presoak ehunka kilometrora daudela eta haien seme-alabek jarraitzen dutela guk bizitakoa pairatzen.

Gainera, errelatoa beste ertz batzuetatik osatzen ari gara garaiotan. Ez naiz lehenengoa gizonen begiradatik aldenitzen: Miren Azkaratek atera zuen haur erbesteratuen inguruko testigantza-liburua, Lander Garroren *Gerra txikia, Zenbat lo* album ilustratua, Olatz Daño-beitiak bukatu berri duen tesia... Ez naiz igerileku hutsera bota; bide hori ere ireki didate beste batzuek.

Zer leku esango zenuke eman zaiela motxiladun umei euskaldunon errelato kolektiboan?

Esango nuke izan dela txikia, helduen begiradatik eraikia, eta pixka bat penazkoa, biktima paperari lotua. Ulergarria da, umeak oso izaki zaurgarriak direlako eta egoera gordin baten aurrean daudenean bihotza uzkuratzen zaigulako. Baina oso eskasa izan da leku hori, eta orain arte beste batzuek eraikitakoa.

Horri erantzuteko asmoz ekin zenion lan honi?

Bai. Idazteko joera beti izan dut, baina inoiz ez nuen pentsatu honen inguruko nobela sortzen amaituko nuenik. Baina,



“ ”

Iruditzen zait, espetxeaz eta motxiladun umez aritzean, iraganean hitz egiten hasi garela bat-batean

sakabanaketa bukatzeaz zegoela, Madrildik gora egon zirenean Espainiako Estatuan zeuden preso guztiak, “ospatzearren” edo, komunikabide asko hasi ziren preso ohie elkarrizketak egiten; oro har, preso ohi gizoni. Aitari ere egin zioten, eta galdetu zioten Puerto de Santamaríako espetxera (Cadiz, Andaluzia) zihoan autobusaren inguruan. Pentsatu nuen: “Hau zer da, broma bat? Autobus honetan ez dira preso ohiak egon, baizik eta senideak, lagunak, bikoteak, amak... Benetan honen inguruan ere gizon preso ohie galdetu behar diezuela?”. Orduan, nolabaiteko haserreak eta kontzientzia feministak bultzatuta, testu bat idazten hasi nintzen. *Naiz*-en argitaratu zen iritzi-artikulu bat izaten bukatu zuen, eta pixka bat zihoan esatera nahikoa dela fokua gizon preso ohie soilik emateaz. Horrekin batera, maitasun inkondizionalaren eslogana

zabaltzen ari zen hartan —“gure neskak onenak dira, Puertoraino etorri dira astebururo...”—, gogorazi nahi nuen baietz, txalotzekoa dela, baina ez zutela bakarrik maitasunagatik egin: hori ere militantzia politikoa zen. Eta, aldi berean, guztiz baldintzatuta: zeinek erabaki zezakeen benetan horrela jarraitu nahi zuen edo ez? Ezezkoa erabaki zutenekin zer egin dugu guk, mugimendu politiko bezala, nola tratatu ditugu? Izan zuen oihartzuna artikuluak, eta inguruko lagun feminista askok eskertu zidaten idatzi izana

Horrez gain, 2021eko gazte feministen Baterajotzean *Emakumea eta kartzela* tailerlean parte hartu nuen. Tailerren onorioetako bat izan zen falta zitzaigula beste begirada batzuei arreta jartzea, eta horrek bultzada eman zidan erantzuteko. Ertzetara jo eta, kontuan izanik badirela oraindik eta periferikoak diren ertz gehiago, bizipenek ematen zidaten aukera baliatuz, zerbait sortzeko.

Lanak elementu autobiografikoak badituela jakinik, erraza da irakurleak biluzte moduan jasotzea. Ez da egoera erraza, eta are gutxiago literatur plazara sarrera eman dizun lana izanik.

Liburua idazten hasi nintzenean ez neukan oso argi zertan ari nintzen, fikzioa izango ote zen, nobela... Baina laster

konturatu nintzen ez nuela neure bizipenetan zentratu nahi. Batetik, hainbeste motxiladun haur egonda herri honetan, pertsona bakarraren bizipenetan zentratzeak hutsune asko sortuko lizkiokelako kontakizunari. Eta bestetik, neure burua modu horretan erdigunean jartzeak beldur eszeniko pixka bat eragiten zidalako. Beraz, erabaki nuen inguruko lagun batzuen bizipenekin osatuko nuela eta, hala, baliatuko nuela hori guztia ariketa kolektibo bat egiteko, bai idazketa prozesuan, bai hemendik aurrera datorren guztian ere.

Horretarako, motxiladun haurrok kafe bueltan terapia pixka bat egiteko edo poteak hartzeko elkartu garenetan atera diren gertakari eta sentipen errepikatuei begiratu diet. Horiek bai edo bai sartu gura izan ditut. Haurtzaroko pasarte asko gogoratzen ez nituenez, amari galderak egitera jo dut, eta inguruko lagunei, bizitakoa oroitu edo, bestela, imajinatzeke. Irudikatze-ariketa izan da, pentsatuz nola jokatu genukeen bost urterekin espetxea zer zen ere jakin barik espetxera heltzean. Baita inguruko haurren jokabideei erreparatuta ere.

Askori zaigu ezaguna eleberriak jasotzen duen giroa, haur motxiladunon errealitatea hain hurbiletik bizi ez arren. Hirugarren pertsonan entzundakoari sakontasuna emateko aukera da.

Hori bilatu nahi nuen. Uste dut daukagula pixka bat mitifikatua espetxearen eragina, minimizatu egiten dugula. Horrenbeste erromantizatu dugunez ausia, ez gara benetan kontziente espetxeak sor ditzakeen ondorioez. Euskal Herrian oso ikerketa gutxi egin dira motxiladun haurren inguruan. Nik horren inguruan egin nuen Gradu Amaierako Lana, eta

ondorioetako bat zen espetxeak bere horretan izugarri baldintzatzen duela haurren garapena, hainbat arlotan. Eta jo dugunez hori nolabait lausotzera, ez dugu aztertu nolako trauma sor diezaiokeen horrek guztiak bizitza osoan zehar espetxea zentroan izan duen umeari,

“ ”

‘Gure preso’-tzat ditugunak etxeratzen ditugunean, gerta daiteke espetxea ahaztea gure mugimenduan

edo aita edo amarekin kalean bizi zen eta bat-batean gurasoa kendu dioten umeari, atxiloketan presente egon eta pistola zuzendu diotenari... Uste duguna baino arazo askoz gehiago sor ditzake egoerak, ez bakarrik haur motxiladunei, baizik eta edozein haurri zeinaren gurasoak espetxean dauden.

Irakurtzerakoan sentsazioa izan dut orokorrean begiratu izan diogula espetxearen alde “kuantifikagarriari”, errepikatu ditugula kilometro kopurua, orduak, gasolinan gastatutako dirua... eta falta izan zaigula horren atzean dauden inplikazio emozionalei begiratzea.

Horrek bi bide ditu. Batetik, orain arte



zer zurruntasun mailarekin begiratu behar izan diogun egoerari. Emozioei zirikitutxo utziz gero, litekeena *krak* egitea delako. Orduan, eskola eraiki behar duzu, edo eraiki behar dizute; umeen inozentzia baliatuz disimulatu bizitzen ari zarena. Oskol handi horren ondorioz bukatu dugu sinesten, baita mugimendu bezala ere, presoa askatzen den egunean sufrimendua bukatzen dela. Nik erabaki nuen liburuan ez zela hor bukatuko kontakizuna, niri neuri askoz gehiago kostatu zitzaidalako aitaren etxeratze eta egokitzapen-prozesua aurrekoa baino.

Izan ere, jaiotzean tokatzen zaizun egoeran bizitzen ikasten duzu. Niretzako hori zen ohikoa, eta hori sostengatzeko badugu sare bat eraikia: fisikoki, bidaia egiten laguntzeko, ekonomikoki, sozialki, emozionalki inguru hurbilak babesten bazaitu... Eta gero, espetxetik ateratzen da senidea, eta dena da zoriona, errelatoaren arabera. Eta ez da egia. Zeren eta bat-batean helden zaitzu etxera aita bat edo ama bat apenas ezagutzen duzuna. Orokorrean, gainera, etxean bizitzen egon diren horien artean oso lotura bereziak sortu dira, amekin, aitona-amonekin... Zerbait partekatua pairatzean modu berezian elkar zaintzen ikasten duzu. Eta orain ikasi behar duzu pertsona berri horrekin bizitzen eta, gainera, beste pertsona horiekin daukazun lotura baldintzatuko du nola-bait. Horri ez diogu hitzik jarri oraindik. Niri asko kostatzen zait hitzetara ekaritzea, epaitua izan naizelako horregatik.

Ihintza haurra denean, egoera leuntzeko saiakeran, gezurra esaten diote espetxearen inguruan. Haurrei gezurra esateko ohitura orokortuak ez dirudi bidezkoa, baina, aldi berean, nola egin bizigarri bere horretan bidezkoa ez dena? Edonola ere, iruditzen zait gizarte moduan haurrak infantilizatze dugu joera agerikoa dela.

Bai, eta esango nuke gaur egun aldaketa bat nabaritzen dela gu motxiladun haur izan ginen garaiaren aldean. Nik inguruan ditudan kasuan, behintzat, ez diete esaten aita lanean dagoenik. Umeen garapen emozionalari, autonomiari eta halakoei horrenbesteko arreta ematen ari zaion garaian, ama eta amama askok –horiek baitira inguruan ditudanak– erabaki dute argiak izatea umeekin. Muga batzuekin, noski, elkarriketak ezin duelako agian nahi bezain sakona edo garatua izan.

“ ”

Gure mugimendu politikoan falta zitzaigun emakumeei aitortza egitea. Ez figura hauek idolo bilakatzeko, baizik eta birpentsatzeko zeri ematen diogun aitortza politikoa

Oso erabaki zaila iruditzen zait, izan ere, kartzelarekin datozen konnotazio negatiboen ondorioz, arazotsua da haurra egoeraz jakitun izatea. Ez baldin badago lagundua kartzelaren inguruko beste hausnarketa batzuekin, gaizkilearen hori daukagu buruan. Liburuan ageri den gatazka da: “Aita gaizkilea da, bihozgabea da... baina nola izan daiteke, ni hainbeste maite banau, eta amak hainbeste maite badu bera?”. Badago mito hori: kartzelan dauden guztiak gaiztoak direla eta merezi dutela hiltzea.

Liburuak pausuak ematen ditu Euskal Herrian zutabe handia den figura bat deseraikitzeke: eusko gudariarena. Nondik dator hori?

Bizipen propioetatik. Auzoan ikusi dudaretik, militantzia-espazioetan... Bestalde, haur motxiladun askori sortzen zaigu gurasoen ikuspegi horrekiko kontraesana. Txikitari, ez zarenean kontziente sistema oso bat dagoela behartzen duena zure aita espetxean egotera, ez da erraza argi izatea bera ez dela horrela bizitzea erabakitzen ari. Uste dut askok sentitu dugula bi aurpegioko historia zela: batek, hezi gaituztenen ezkutuko lana eta sostengu emozionala, orokorrean emakumeek eginga, amek eta amonek; eta bestetik, etengabe ohoratzen ari ginen beste figura hori, ez zegoena gure etxetan, eta batzuetan ulertu izan duguna gure minaren erantzule gisa. Nahiz eta horrela izan ez, ume baten ikuspegitik hala uler daiteke.

Beste arlo batzuetan mugimendu feminista ari den moduan saiatzen hori

arrakalatzen, gure mugimendu politikoan falta zitzaigun emakume horiei aitortza egitea. Ez figura hauek idolo bilakatzeko, baizik eta birpentsatzeko zeri ematen diogun aitortza politikoa, zer erabaki diren txalotzen ditugunak eta zeintzuk ez, eta, are, zeri kentzen diogun erabaki izaera bera. Izan ere, badirudi preso egon diren gizonen bikotekide emakumeei tokatu egin zaiela ama izatea. Eta badu hortik, ezin izan dietelako haien buruei permititu erabaki ahal izatea, kanpokoak neskak izan direnean. Eta, kontrara, zenbat emakume preso izan ditugu urteak eta urteak bis intimorik gabe?

Finean, ikusarazi gura nuen zer zen gure etxetan gertatu dena, zeinek sostengatu dituen gure bizitzak; barrukoek, zoritxarrez, ezin izan baitute egin.

Bikotekideak eta gurasoak bigarren planoan badaude, enegarrenean geratu diren horiek ere baditu lagun Ihintzak: Mirentxin kolektiboko gidariak, senide urrunagokoak eta senide lagunak...

Nahi nuen drama absolututik ihes egin eta ez irudikatu ume bat bizitza zail-zaila daukana, super triste bizi dena, baldintza penagarrietan... Uste dudalako gutako asko ez garela horrela bizi izan, pixka bat faltsua litzatekeela. Eta egon dira hainbeste figura lan egin dutenak guretzako hau guztia ahalik eta bizigarriena izan dadin, ze ezinbestekoa iruditzen baitzitzaidan aipatzea, esaterako, Mirentxineko gidariak. Adibidez, nire amak ez du gidatzen, eta beti izan dugu aukera bisitan joateko: aita Puerton zegoenean, autobusean; gero Mirentxinekin, edo lagunekin, senideekin... Ezinbestekoa iruditzen zitzaidan jende horri ere aitortza egitea, hori ere erabakia izan baita, politikoa. Emozionala bai, baina politikoa ere bada. Izugarriko antolakuntza-maile eduki dugu herri honetan elkartasun guzti hori antolatzeke.

Egia da kontakizunak baduela halako soiltasun bat: egoera bortitz eta mingarriak dira, eta sentipenek badute presentzia, baina narrazioa ez da haien baitan kateatuta geratzen. Nahita saihestu duzu hori?

Bai. Umearen ahotsak oso aukera polita eman dit horretarako: inozentziaren bidez arazoak pixka bat sinpletzeko eta umore pixka bat absurdoagoa sortzeko. Horretan Garazi Arrula editoreak lagundu dit pila bat. Gero, Ihintza hazten doan



heinean, gehiago sakontzen da arazoen eta hausnarketa politikoetan.

Bestalde, liburua heldu zenean eta distantziak irakurri nuenean goitik behera, duen intentsitateaz konturatu nintzen. Azkar irakurtzen da, idazkera nahiko arina baitu eta horrek eramaten egiten baitzaitu. Baina irakurri duzuzaren inguruan pentsatzen gelditzen zarenean, intentsitate emozionala, politiko... Izugarria da.

Lanaren egiturari dagokionez, aita espetxetik ateratzen den unetik abiatzen gara, gero atzera egiteko. Nondik dator erabaki hori?

Nahi nuen apurtu, aipatu dudan moduan, aita espetxetik ateratzen denean mina bukatzen delako kontakizunarekin. Une hori desmitifikatu nahi nuen, gaiaz hizketan haur motxiladun askok aipatu izan baitugu egunean bertan nahiko itota sentitu ginela, estresatuta. Zoriona baze goen, noski, baina unea bera desatsegin samarra izan zen askorentzat. Eta iruditzen zitzaidan izan zitekeela asmo-erakustaldi bat, lanak ekarriko zuen gorabehera emozional guztiena. Era berean,

hala fokutik kentzen da unea bera, eta aukera zabaltzen da aurrekoan eta ostekoan zentratzeko. Pasarte bat gehiago da, ez lanaren zentroa.

Kartzelak ezandarazteko aldarriak ixten du lana. Izan ere, Euskal Herriaren azken hamarkadetako historian pisu handia izan du espetxeak, baina ez da guri soilik dagokigun auzia.

Horrela bukatu nahi nuen, batetik, gogorarazteko gaur egun ere badaudela 97 haur, 62 adin txikiko guraso gabe hezten ari direnak. Aldarria egin nahi nuen, gairiotan beste fase politiko batean kokatzen ari garelako espetxea bera, baina uste dudalako oraindik ere urte asko falta direla amesgaiztoa buka dadin, eta badaudela pagaburu izango diren kide batzuk, asko pairatu beharko dutenak. Orduan, badauka beldur horretatik, ez ahazteko nahitik.

Basakeria hutsa da espetxea bere horretan. Sistema oso bat da pertsonak suntsitzeko, pertsona jakin batzuk. Ertzekoak. Eta aurreikus dezaket gure mugimenduan gerta daitekeela, "gure

preso"-tzat ditugunak etxeratzen ditugunean, espetxea ahaztea. Gure ingurua ez duenez hainbeste baldintzatuko, ahaztuko dugun borroka-eremua izan daitekeelakoan nago.

Guk, gainera, beste batzuk baino baldintza askoz hobeeekin egin ahal izan diogu aurre espetxeari. Larritasunik kendu gabe, baina sare oso bat egon da bisitan joateko jendea antolatzen, presoak ekonomikoki eta emozionalki sostengatzen... Badago espetxeari askoz egoera prekarioagoan aurre egin behar dionik, eta are gehiago haien haurrek. Eta horrekin batera, gainera, aurre egin behar diote espetxearen baitako estigmari. Guk ez bezala, inguru batzuetan behintzat. Estigma sozial hori haien larrian bizi dute: gurasoak lapurtzeagatik edo droga-kontuengatik badaude espetxean, gizartearen begietan, ikaskideen, irakasleen edo, are, senideen begietan, gurasoek merezi dute espetxean egotea. Ez da jendartean sor daitezkeen arazoei irtenbidea topatzeko tresna bat, baizik eta arazo horiek betikotzekoa, eta jende konkretu bat izkinaratzekoa. Tresna eraginkorra eta *brutala* da. ●



Hitz gezidunak

NORABIDEA ADIERAZTEKO IKUR GOIBURU	MEMELO, LERDO ZEREALEN ZURTOINA	ATSEDEN GARAI, LANUZTE	TAMAINA HANDIKO HEGAZTIAK GOGO BIZI	KATALUNIako ALDERDI POLITIKOIA ROENTGEN	ILUN, OSPEL LEHOR	NAFARROAKO HARANA MAPA BILDUMA		
		JARIO UGARIAN LETRA IZENA						
* HERRIA NEURRIZ KANPO ASALDATZEN DENA				* LELOA OXIGENOA				
					KARRIKA AFRIKAKO HIZKUNTZA			
ALEAK HAUSTU	MODU ATZIZKIA GIPUZKOAKO HERRIA					GAUZA HUTSALA, EZEREZKERIA		
		UGAZTUM MOTA				BEHARBADA, APIKA	ERREPIKATUZ, LOGURAREN EULIA UDAKO HIL	
EUSKO ALDERDI JELTZALEA ORDOTS								
	BAT ERROMATAR ZENBAKIZ TXAKURRAK					ZAREN HORI NAFARROAKO HERRIA		GIGA ANESTESIKO MOTA
ZEIN ZAMAK ALTXTATZEKO MAKINAK		HERRI HANDI PRESIO UNITATE	UKAMEN DENBORA, SASOI	IDI HITZ ELKARKETAN	BIZKAIKO HERRIA GARAI, ALDI			
				GAUA SARTU ZILARRA				
* JAIA ERRETORE								
				KALTE				

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	8			2	7			4	
	2	4	5					6	7
5		7						9	3
	5		9		8	3	2		
6						4			8
	3		1			5			9
				5		7	3		
	4				1				
			7		9			4	5

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Anatido izena.
- Haria bilduz egindako bola.
- Pisu gutxikoa.
- Estuki, hertsiki.
- Enara.

EBAZPENAK

- AHATE
- HARIL
- ARINA
- TINKI
- ELAIA

9	8	3	6	2	7	1	5	4
1	2	4	5	9	3	8	6	7
5	6	7	8	1	4	2	9	3
4	5	1	9	7	8	3	2	6
2	3	8	1	4	6	5	7	9
6	7	9	2	3	5	4	1	8
8	1	4	6	5	7	9	3	2
7	4	5	3	6	1	9	8	2
3	1	2	7	8	9	6	4	5

V	A	V	A	G	O	I	O	R	I	A	R	I	B
Z	N	O	A	O	R	R	R	F	A	R	R	N	A
U	T	U	G	V	A	K	G	A	R	A	B	I	A
E	A												
G													
Z	S	A	V										
E													
U	L	V	F	U	L	A							
E													
U	Z	I	P	A	Z	O	G	A	N	G	A	Z	
N	V	S	T	U	R	U	P	O	P	O	R	L	E
V													



Itzalari begira

UXUE GUTIERREZ LORENZO GORKA BRAVO

Orain dela bi urte izan nuen *Moor Krad* obraren berri; hain zuzen, Ertza konpainiako kideek dantza pieza sortu eta estreinatu zuten garaian. Orduan, 2022an, Asier Zabaleta koreografoaren hitzen bitartez saiatu nintzen emanaldiak adierazi nahi zuena ulertzen. Gerora, Zabaletarekin izandako solasaldia testu bilakatzea egokitu zitzaidan. Gaurkoan, orduan jaso nuen informazioa dagokion formatuan ikus-teko parada izan dut. Gaur bai, dagokion lengoia ariko dira Zabaletaren esanetara jardun diren dantzariak.

Sortzaileen hitzetan, denok dugun -eta sarri ukatu nahi dugun- alderdi ilunari erreparatzeko asmoz ondutako proposamen eszenikoa da *Moor Krad*. Izenburuari buelta emanda, *Dark Room* (ingelesez, gela iluna). Joko horri segika, Muxikebarri aretoa oso toki egokia iruditu zait pieza taulartzeko. Beltz-beltza

da gela, beltzak besaulkiak, beltza oholtza eta beltza da teloa ere bai.

Oholtzan agertu dira lau dantzariak eta Iosu Yeregi abeslari lirikoa. Yeregik eskutan duen argia da iluntasunean ageri den izpi bakarra, eta fokoaren itzal-argi-itzal jolasa aski da datorrenaren lehen zantzuak agerian uzteko. Mehatxagarrak iruditu zaizkit dantzarien mugimenduak, elkarren artean kiribilduta askotan. Edozein kasutan, aske bizi dira dantzariak, ezkutatu gabe.

Yeregiren ahotsak eta gorputzak gidatzen du, nolabait, istorioa. Yeregik hezur-mamitzen gaitu gu, hezur-mamitzen du norberaren alderdi ilunari begira jartzen den gizabanakoa. Dantzaldian musika indartsua entzuten den arren, oso modu berezian jantzen du pieza Yeregiren kantuak. Zabaletak aitortu du Yeregiren lana berebizikoa dela emanaldian: Henry Purcell eta John Dowland konpositore barrokoen

MOOR KRAD

NORK: Ertza konpainia.

NOIZ: urriaren 3an.

NON: Getxoko

Muxikebarri aretoan.


hainbat pieza hautatu dituzte, eta zuzenean kantatu ditu abeslari lirikoak. Doinuei dagokionez, musika elektronikoaren eremura eraman dituzte pieza klasikoak. Kantatu ez ezik, dantzatu ere egin du Yeregik, dantzari profesionalekin integratuta.

Yeregik bere alderdi iluna irudikatzen duten dantzariekin harreman korapilatsua du, denok dugun bezalakoa. Kurioski, sedukzioak eta biolentziak jantzen dituzte sekuentzietako asko; edo, behintzat, horiek dira identifikatzen errazena.

Eszena sekuentzia sorta indartsua osatu dute artistek. Batzuetan gertu, besteetan urrun. Zenbaitetan besarkatuta, beste askotan borrokan. Horrelako zerbait da norberaren alderdi ezkutua-rekin harremana, ezta? Batzuetan, agian, onartu egiten dugu. Baina, gehienetan, errefusatu. Eta, beraz, zer gertatzen da gure alderdi ezkutuari erreparatzen diogunean? Nora garamatza? ●



Aliziaren zikloa euskaraz



WIKIMEDIA

SNARKAREN EHIZAN

LEWIS CARROLL
IRUDIAK: HENRY HOLIDAY
ITZULPENA ETA EDIZIOA:
MANU LÓPEZ GASENI

PAMIELA, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Udaberrian argitaratu zen esku artean dugun obra hau. *Alizia herrialde miresgarrian*, *Ispiluan barrena* eta *Alizia haurrentzat* obren ondoren, Lewis Carrollen liburu honek Aliziaren zikloa ixten du. Aurrekoak bezala Pamiela etxe nafarrak ekarri du gure artera, Manu Lopez Gaseniren itzulpenari esker.

Ziklo osoko obren antzera, honetan ere jatorrizko edizioari begira egin da euskarazkoa; 1876koan, azalean eta kontrazalean nahiz barruan Henry Holidayrkin eginiko grabatuak aurki ditzakegu, baita Carroll berak sinatuta sarrean ageri den poema bat ere, Gertrude Chatawayri eskainia.

Amaieran, gainera, gibel solasa eskaini digu Lopez Gasenik, liburuaren nondik norakoak eta euskarazko itzulpenaren berri emanez. Horrez gain, *dramatis*


personae bat aurki daiteke, pertsonaia bakoitzaren irudi batekin eta obran duen rolaren deskribapen labur batekin.

Lewis Carrollen obra honetan zentzugabea edo *nonsensea* dugu elementurik nagusia, argumentuaren gaitetik esango nuke. “Hamar kidez osatutako eskifaia ezin bitxiago bat itsasoan amaierako uharte batean bizi omen den Snark izaki fantastikoa ehizatzen joan da. Bidean aurkezten diren egoerak zentzugabeak dira, eta ehiza eta Snarka bera, kimerikoak”. Horrelaxe laburbiltzen zaigu istorioaren nondik norakoa kontrazalean, eta bidaia hori dugu kontakizuna.

Obra honetan bi kontu dira aipagarrienak. Alde batetik, irakurleak izan dezakeen sentsazioa gertakari absurdo eta zentzugabeen aurrean. Carrollen obrarik zailena dugu eta, aldi berean, jasoe-

na, zalantzarik gabe. Eta, bestetik, hori guztia euskarara ekartzeko eginiko lana. Itzultzaileak poesia jasoan, herrikoian eta bertsolaritzan oinarritu behar izan du euskaratzeko orduan, ohiko errimak nahiz barrukoak osatzerakoan, izen eta egoerekin jolastean. Eta, horrela, lortu da jatorrizko lanaren ahalik eta antzekotasun handia izatea euskarazkoa.

Liburu jasoan dugu *Snarkaren ehizan* hau, ez bakarrik hizkuntzagatik, baita argumentuaren zentzugabetasunagatik ere, baina, era berean, irakurketa aberatsa eskatzen eta eskaintzen duen lana da. Alde horretatik txalogarria da argialetxeak eta editoreak egin duten esfortzua Aliziaren zikloa osorik euskal irakurleari eskaintzeko. Zorionekoak, beraz, irakurle horiek, baita euskal kultura bera ere. ●



MUSIKA

Tempus fugit carpe diem



A. BOFILL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Carl Orffen *Carmina Burana*-ren bertso honek, La Fura del Bausen eskutik, Carlus Padrissaren zuzendaritza bitxiaren pean, hamalau urte daramatza eszenatokietan bueltaka, nahiz eta jende askorentzat zerbait berria izan.

Oraindik gogoan dut 2009an estreinatu zela, Donostiako Musika Hamabostaldian. Iraultza txiki bat zirudien. Zerbait desberdina, ikusgarria, adierazkorra. Baina, nire ustez, produkzio hori gaizki zahartu da.

Zortzi metroko diametroa duen zilindroa, musikariak bildu eta pantaila-lanak egiten dituen, ilargi erraldoi bat, izotza urtean, eta hainbat gauza proiektatzen dituen, garabietatik zintzilik eta ardotan, uretan eta sutan murgildurik dauden tabernak eta abeslariak, eszenan ikusten ditugunak eta hasiera batean hain iradokitzaileak izan zitezkeenak (benetan

uste dut jatorrizko eszenaratzea pixka bat zainduagoa zela), hori guztia une honetan bigarren hezkuntzako ikasleen antzezpene iruditu zait.

Carl Orffen obraren edertasunari eta indarrari buruz ezer gutxi esan daiteke. Testuei dagokienez, jatorrizko *Carmina Burana* XII. eta XIII. mendeetako olerki bilduma bat da, kodize bakar batean kontserbatu direnak eta bizitzeko poza eta plazeretik, maitasunetik eta naturaren gozamenetik interesa goraiatzeko dutenak, betiere garaiko estamentu sozialei begirada kritiko eta satirikoa emanda.

Musikari dagokionez, lanak 25 numero ditu. Indar erritmikoa da bere ezaugarri nagusia, eta horrek entzulearen bihotzeraino iristen den bulkada ematen dio. Egia esan, partitura orkestra handi baten idatzita dago baina oraingo honetan Chamartin Orkestra Sinfonikoarekin konformatu behar izan dugu, bi pianok, kon-

CARL ORFF-EN 'CARMINA BURANA'

ESZENA-ZUZENDARITZA ETA ESZENOGRAFIA:

Carlus Padrissa (La Fura del Baus).

MUSIKA ZUZENDARIA:

César Belda.

NOIZ: urriaren 5ean.

NON: Bilboko Arriaga Antzokian.

trabaxuak, flautak eta perkusioak osatutako talde instrumentalarekin, eta CB Creatives koruarekin, eszenan *desparpajo* eta aietasuna erakutsi zituena, inolako zalantzarik gabe.

Pena da bakarlarrien izenak ezin aipatzea, fitxan ez direlako ematen. Sopranoak kantatzeko ahalegin handia egin behar izan zuen, eszena gainean kabriolak egiten zituen aldi berean, eta tinbre ona erakutsi zuen, nahiz eta agudoetan zailtasunen bat izan.

Baritonoak fraseo on eta beroa erakutsi zuen *Omnia sol temperat*-en nahiz eta agudoak ere ez izan bere ezaugarri onena.

Agian, kontratenorrarena izan zen aktuaziorik ahulena, zailtasunez abestu baitzuen bere *Olim lacus colueram*, oitlasko errean antzeztuz, sukaldatzen ari den bitartean biratzen ari den barran bere patuaz damutzen dena. Pena, bene-benetan. ●

Hori barkaezina da, Rafa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Badoala, agur esango duela, erretiratu egingo dela Rafa Nadal. Notiziarekin artillero dale fuego aritu da prentsa pasa den astean, baina ohiko moduan, inporta duten gauzei erreparatu ordez, mundu guztiak dagoeneko ezagutzen zuen informazioa zerbitzatu digute arrautza-irinetan pasata: irabazi dituela Grand Slam pila bat, historiako tenislarik ez dakit-zerrena dela, eta hau, hura eta beste. Eta tenis profesionala piperpoto bat bezainbeste axola zaigunoi pixka bat indiferente utzi gaitu horrek denak, egia esan.

Gainera, iruditzen zait kirolean izan duen arrakastak estali egin duela Nadalen ibilbide literarioa. Mesedez, ez jarri aurpegi hori. Lehenago irakurri 2021ean idatzi zituen txioak, lesio batengatik denboraldia bertan behera utziko zuela iragarritz: “Urte bat da zeinean asko inporta zaizkidan gauzak galdu ditudan, adibidez Wimbledon, Olinpiadak, eta orain AEBetako Opena, eta beste ekitaldi asko zeinak garrantzitsuak baitira niretzat eta ikusirik azken urte honetan ez dudala gaitasunik izan entrenatzeko eta prestatzeko eta lehiatzeko benetan gustatzen zaidan moduan azkenean iritsi naiz ondoriora behar dudana denbora dela errekueratzeko zenbait gauza aldatzeko saiatzeko ulertzen zein izan den oinaren eboluzioa azken bolada honetan ez da lesio berri bat 2005etik daukadan lesioa da eta ez dit eragotzi nire kirol ibilbidea garatzea urte hauetan guztietan”.

Ez da oso kritikari zolia izan behar jabetzeko esaldiaren hasieran puntuazio araei kontzesio txikiren bat egin arren, Nadal gai dela Joyceren *Ulises*-eko Molly Bloomen monologo famatuaren pareko testu bat ekoizteko. Tenislaria badoa, autore modernista itzela datorke. Goazen, Rafa.

Hori bai, giro literarioetan nagusi den ideologiarekin tentuz ibili beharko du Manacorrek pilotas pasatzaileak. Aber, ez dut esan nahi tipoa fatxa bat denik.

Duela gutxi zendu den Fredric Jamesonek ongi irakatsi zigun moduan, debate publikoan nagusitzen diren eskema bitarrak gaingitu beharra dago –adibidez, fatxa-progre dikotomia–, terminoak bikoiztuz: onar dezagun fatxa-fatxak eta progre-progreak badirela, baina baita progre-fatxak eta fatxa-progreak ere. Esango nuke Nadal azken horietako bat dela. Bera saiatzen da balio aurrerakoiei kontzesioaren bat egiten. Azkenean, ordea, bainak beti leku beretik ateratzen zaizkio: “feminista naiz, baina termino hori muturrera eramaten da”, “denak gaude arrazakeriaren kontra baina kaleko protestak ez dira bidea”...

Portzierto, Kataluniako erreferendumaz ere hitz egin zuen bere garaian: legeak errespetatu behar direla, berak ez zuela semaforo gorri bat saltatzen semaforo hori egokia iruditzen ez zitzaiziolako. Joino Rafa, pentsatu nuen, eta zer koloretakoa zen Ogasunaren semaforoa 2006an Donostian merkataritza-

sozietate bat erregistratu zenuenean, horren bitartez beste sozietate-sare bat gestionatzeko, eta prestidigitazio fiskal horrekin zure irabazi milioidunen gaineko zergak %1etik behera edukitzeko? “Zertarako joango zara Suitzara edo Andorrara, Kontxako hondartzaren aldamenean gauza bera lortuko baduzu, eta gainera askoz janari hobearrekin. Konparatzea ere!”, esan omen zion trikimailua proposatu zion aholkulariak.

Baina kontu horiek txikikeriak dira. Nadalen ibilbidean zerbaitek kondena irmoena merezi badu, demokrata guztien gaitzespena eta abar, honakoa da: hogeitaz urtez, partiduz partidu, izan belar gainean, pistan edo lur zanpatuan, Australiako Openetik Roland Garrosera, Davis kopatik pasaz, tipoak ez duela ikasi behar bezala jantzen, eta sake bakoitzaren aurretik hor ibili izan dela, mundu guztiaren aurrean, ipurdiko erretenean sartuta zeukan galtzontziloari tiraka. Hori barkaezina da, Rafa. ●



Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

280 orrialde, 211 argazki

Marc Badal eta Miguel Arribas Kelo

Liburua 26€



BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

